

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU



Herri zahar **Andre berri**



Nabigazio-egunkaria
Herri zahar, Andre berri



EUROPAKO KULTUR
HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA
DE LA CULTURA

NABIGAZIO-EGUNKARIA. HERRI ZAHAR, ANDRE BERRI

1. Koordenatuak definitzea, helmuga aukeratzea... Herri Zahar, Andre Berri, eraikitze-bidean dagoen bidaia

2. Ibilbideak zehaztea, maletak egitea... Biarritzera goaz...

2.1. Bidaiaren prestaketa

2.2. Nora zoazen ez ezik, norekin zoazen ere garrantzitsua da...

2.3. Bidaiatzeko beste modu batzuk sortzearen garrantzia...

Hiru ibilbide

Bidegurutzeak eta saihesbideak

Gure bidaia-proposamena

3. Bidaiaren kronikak. Biarritz, 2016ko apirila, plazak plazeretik okupatzea.

3.1. Bidaiaren geldialdietan ikusitakoa aztertzea: Zer elementu ikusi ziren iraganaren, orainaldiaren eta etorkizunaren azterketan?

Lehenengo unea: Elkar ezagutzea

Bigarren eta hirugarren unea: Iragana gogoratzea eta orainaldia definitzea

Laugarren eta bosgarren unea: Desiratutako etorkizuna definitzea eta etorkizun horretara nola heldu planifikatzea.

3.2. Ibiltzea, partekatzea, gozatzea... Edukien eta metodologiaren inguruko ikaskuntza batzuk.

Bidaiaiko postalak

4. Maletak desegitea eta argazkiak errebelatzea... Bidean aurrera egiten jarraitzen dugu...

Argazki-albuma

Nabigatzaileei abisua

Nabigazio-egunkari honekin hasi baino lehen, hainbat ohar hurrengo orrialdeetan aurkituko ditugun edukien eta esanahien inguruan. Dokumentu honek *Herri Zahar*, *Andre Berri* izan den eta izaten jarraitzen duen bidaiaren elementu nagusiak biltzen ditu. Are gehiago, gureak ez diren ideiak jasotzen ditu, hau da, ez dira eduki hauek idazteko lana hartzen duten pertsonen ideiak, baizik eta bidaiaria horretan parte hartu duten pertsona eta erakunde guztienak, bereziki, Biarritzeko Topaketan 2016ko apirilaren 1etik 3ra parte hartu zutenenak. Dokumentu hau haientzat da. Espero dugu hemen kontaktzen dena baliagarria izatea haien erakundeetan, herrietan edota erreferentzia-guneetan lan egiten jarraitzeko. Horrez gain, aipamen txiki bat Topaketan bildu zen taldeari: Monika Plazaola, Ixiar García, Galder Pérez, Iñigo Cantero, Enara García eta Silvia Piris. Bakoitza, gure jatorri eta ezagutzetatik, proiektu honetan ekarpenak egiten saiatu gara, eta ez dago zalantzarik ekarri genuena baino gehiago daramagula gurekin proiektu honi esker.

Edukiak bidaiaria baten kronika moduan aurkeztu nahi izan ditugu, hau da, bidaiatzeari buruz guretzako nagusiak diren ideiak berreskuratuz: mugimendua eta beste ibilbide batzuetan ibiltzea eta beste gune eta plaza batzuk okupatzea; begirada zabaltzeko, ikusteko, entzuteko eta ikasteko aukera izatea; beste batzuekin elkarbanatzea; eta logika produktibistetatik eta denbora itxietatik alde eginez, egotearen eta prozesu propioez gozatzearen plazera berreskuratzea. Horrela sentitu ditugu proiektuan orain arte emandako aurrera pausoak: uste dugu ideia horiek guztiak dagoeneko hemen aurkeztu nahi dugun proposamenaren identitatea direla. Gurekin bidaiaria errepika dezazuen gonbidatzea baino ez zaigu falta.

1. Koordenatuak definituz, helmuga aukeratuz... Herri Zahar, Andre Berri, eraikitze-bidean dagoen bidaia

Lehen puntu honetan, bidaia honen koordenatuak aurkeztuko ditugu, baita abiapuntuak eta aukeratutako helmuga ere. *Herri Zahar, Andre Berri* Donostia 2016ko Europako hiriburutzaren (hemendik aurrera DSS2016) barnean dagoen proiektu bat da. Hiriburutzak kulturaren eta elkarrizketaren aldeko apustua egiten du, elkar ulertzea gailentzen den bizikidetza hobeago bat sortze aldera. Zenbait ardatz eta guneren bitartez (itsasargiak, kaiak, energia-olatuak...), aurtengo hiriburutzaren helburuak eta programa zehaztu dira. *Herri Zahar, Andre Berri* proiektua programa honen parte da, eta are gehiago, Bestelab Kaiaren¹ barnean kokatzen da.

Bestelabek sustatzen dituen ekimenek erraztu egiten dute pertsonen ahalduntzea eta partaidetza. Kai horrek sortzeko modu berrien alde egiten du, non ezberdinen arteko topaketek, hibridazioak eta diziplinartekotasunak garrantzi berezia hartzen duten. Halaber, ez da planteamendu teoriko batera bakarrik mugatzen. Horretarako proiektu batzuk jartzen ditu martxan, eta horietan aniztasunak eta ikuspuntu ezberdinen aberastasunak dute xarma. Bestelabek praktika kolaboratzaileetan oinarritutako gizarte berrikuntzako esperientazio-laborategi bat izateko helburua du. Ideiak hartzeko, xede berriei ekiteko edota sareak ehuntzeko kai bat litzateke.

Herri Zahar, Andre Berri estuki dago lotuta helburu horiekin. Proiektu hau gunee bat emateko nahiarekin sortu da, bertan kolektiboki hausnartzeko euskal gizarteak duen proiektzioa emakumeek tokiko tradizioetan eta praktika kulturaletan duten zereginari dagokienez. Horretarako, kolektiboki lan eginez etorkizuneko egoerak sortzea eta horiek lortzeko estrategiak definitzea ahalbidetzen duen metodologia bat erabiltzen da.

Proiektuak funtsezko bi oinarri ditu:

1) **Euskal Herrian emakumeek tokiko tradizioetan eta praktika kulturaletan duten partaidetzaren inguruan hausnartzeko beharra eta interesa.** Proiektuaren hasieratik pentsatu da hiriburutzan lantzeko gai bat izan beharko lukeela, eta gainera, gure errealitate gertukoenean gaurkotasuna eta interesa duen kontu bat da. Emakumeen partaidetzak zailtasunei egiten die aurre, eta gure inguruan gatazka sozialak sortu eta sortzen dituen gunee bat da. Baina, era berean, gunee horretan esperientzia interesgarriak eta erreferenteak aurki daitezke, zenbaitetan oharkabean geratzen direnak. Horren ondorioz, pentsatzen dugu hiriburutzak hausnarketa horren alde egin dezakeela, emakume eta gizonen berdintasunarekiko eta pertsona guztientzat bizikidetza, ongizate eta ekitate-guneak sortzearekiko bere konpromiso esplizitutik abiatuta.

Bigarren oinarriak **prozesu sozial horien alde egiten duten beste metodologia batzuk garatzearekin** du lotura. Lehen aipatu bezala, Bestelabek beste *nolako*, beste egiteko forma eta beste tresna batzuen inguruan hausnartzen du, eta horiek ahalbidetzen dute, hibridaziotik, nahasketatik eta ikuspegi eta proposamenen artikulaziotik, ikuspegi propioak taldean sortzea. Praktikatik eta talde parte-hartzaileekin sortzen diren ikuspegi eta gunee berriak, haien erakundeak eta proposamenak sendotzeko euren eskura geratzen direnak. Modu horretan, proiektu honetarako esperientazio-metodologiko hori garrantzitsu bihurtzen da.

1 Informazio gehiago: <http://dss2016.eu/eu/dss2016eu/bakea/herri-zahar-andre-berri>

Bi oinarri horiek **Herri Zahar, Andre Berri** proiektuaren definizioan eta garapenean kontuan izan ditugu (oraindik sortze bidean dagoela uste dugu). Hala, apur bat gehiago zehaztuz, esan dezakegu proiektu hau Topaketa bat sortzeko asmoarekin egin dela, tokiko tradizioetan eta praktika kulturaletan emakumeek duten partaidetzari buruz hausnartzen duten pertsona edo agenteentzat, edo hori egiteko interesa dutenentzat. Gune honek zenbait aukera ematen dizkigu: dauden esperientziak ezagutzeko aukera; iraganari eta orainaldiari buruzko kontakizunak bateratzekoa esperientzia horietan oinarrituz; egoera desiragarriak sortzekoa, edota eremu horietara igarotzeko bide posible eta anitzak edo estrategiak sortzekoa.

Hala, esan dezakegu proiektu honen definizioan **funtsezko bi premisa** izan direla:

- ✓ Honako gai hauei heltzeko aukera ematen zuten **metodologiek** lan egiteko interesa: *nondik* gatozen, gaur egun *nola* gauden; eta batez ere, kolektiboki etorkizuneko proiektio bat eraiki ahal izatea, *norantz* joan nahi dugun eta nola gustatuko litzazigukeen egitea. Modu horretan, Conferencia de Búsqueda de Futuro edo EASW (European Awareness Scenario Workshop ²) bezalako proposamenetan oinarrituz, eta proposamen horiek zer eman diezaguketen ulertuz, betiere horietara mugatu gabe, prozesurako³ **gure gida metodologikoa** sortzeko beharra ikusi genuen.
- ✓ Proiektu horretarako funtsezkoa zen **topagune** bat ematea. 2 edo 3 egunez bizikidetzagune hori egiteko baldintzak jartzea, bertan aurrez aipatutako gaien inguruan lan egiteko, metodologia egoki batekin. Hala, hasierako proposamenak topagunea egiteko ideia zuen, apirileko asteburu batean. Biarritz hautatu zen horretarako⁴.
- ✓ **Agenteen aniztasuna** (pertsonak edo taldeak) bermatu beharra zegoen, eta agente horiek proposatutako gaien interesa izan behar zuten, eta era berean, prest egon behar zuten beste hurbilketa metodologiko batzuekin gai horiei ekiteko. Horretarako, gune eta begirada ezberdinetatik proposamen honi ekarpena egin ziezaieketen metodologia guztiak identifikatu ziren: emakumeen edo feministen elkarteak, kultura-elkarteak, gaiaren inguruko esperientzia espezifikoak, esparru akademikoa, administrazio publikoa, komunikabideak, etab.
- ✓ Azkenik, arreta ez zen jarriko epe labur batean produktu zehatz edo emaitza neurgarri batzuk lortzean. Garrantzitsua zen proiektutik **ikaskuntza batzuk atera** ahal izatea, orokorragotzat eta espezifikoagotzat hartutako helburuetan

2 Metodologia horiei buruz online eskuragarri dauden zenbait artikulua eta dokumentu bildu ditugu, adibidez: *La conferencia de búsqueda ¿está libre de limitaciones culturales?: la reunión de reflexión y diseño*, Jaime Jiménez eta Juan Carlos Escalante, eskuragarri hemen: ; *La Future Search Conference*, Clara de Uribe-Salazar, eskuragarri hemen: ; *Reunión de planeación participativa*, Gabriel de Las Nieves Sánchez eskuragarri hemen: ; *Instrumentos para la intervención social activa. Los talleres de futuro EASW en el urbanismo participativo*, Isabela Velázquez eta Carlos Verdaguer, eskuragarri hemen: ; *Remodelación de Trinitat Nova. Taller de Debate EASW*, hainbat autore, eskuragarri hemen:

3 Zentzu horretan, eta dokumentu honen beste atal batzuetan aipatzen joan garen arren, aipatu beharra dago azkenean erabili diren metodologia eta dinamikak Pink Gorillasek diseinatu dituela.

4 Zergatik Biarritz? Alde batetik, hiriburutzak euskararen lurralde geo-poetikoa hartzen duelako, Euskadi, Nafarroa eta Iparralde. Programa bereziki Donostiara bideratzen da, baina lurralde gehiago barne hartzen ditu, baita Europa mailako ere. Beste aldetik, proiektuak Euskal Herri mailako tokiko tradizioen gaia lantzen du: hortik begiratu nahi izan zaio errealitate honi, eta osatzen duten lurralde guztietatik esperientziak txertatu nahi izan dira. Arrazoi horientatik guztiengatik erabaki zen azkenean ekitaldia Biarritzen egitea.

aurrera egin ahal izatea, betiere zer konkretu eta itxiak jasotzearen aurretik prozesuaren garrantzia ipiniz. Horrek apirileko Topaketa honela ulertzea eragin zuen: sistematizatu egingo zen esperientzia bat. Gainera, bertatik gutxienez ideia nagusiak biltzen zituen dokumentu bat (honako hau) eduki nahi zen. Baina Topaketa, bereziki, irekitzen den ate baten moduan ulertu behar da, eta ez proiektuaren itxiera moduan, edo nahitaez etorkizuneko lan-lerroak edota **Herri Zahar, Andre Berri** bidaiaren hurrengo etapak atera beharko liratekeen gune baten moduan.

Proiektua babesten duten hainbat gako...bidaiak hau pentsatu nahi genueneko erreferentzia-marko laburra

1. Genero-teoria eta begirada feminista proiektu honen orientazio-printzipio gisa. Betaurreko more hauetatik begiratuta uste dugu praktika kulturalak eta tokiko tradizioak emakume eta gizonen ezberdintasunetan *eraikita* eta *zeharkatuta* daudela, eta gure eredu soziala, politikoa, ekonomikoa, kulturala, eta abar, eraikita dagoen sistema patriarkal eta androzentrikoaren parte direla. Beraz, badakigu emakumeen partaidetza eta presentzia kulturalan, adierazpen ezberdinetan eta tokiko tradizioetan **ez dela (izan) berdina**. Hori, hain zuzen, sexu-genero sistemaren isla da, eta beste elementu batzuen artean, bizitzen eta guneen zatiketa eragiten du, esparru publikoa tradizionalki gizonetzkoen esparrua izanik, eta esparru pribatua, berriz, nagusiki emakumeena. Gainera, bi esparruei balio eta aitorten ezberdinak ematen zaizkie. Nahiz eta urteak pasa ahala egituretan eta gizarte harremanetan aldaketak egon diren, oraindik ere emakumeen eskubideei dagozkien gune ugari geratzen dira bereganatzeko, eta kulturaren eta tradizioaren esparrua agertu da bereziki presentzia eta partaidetza zuzen honen kontrako. Bestetik, begirada feminista hau ageriko egon da metodologiaren eta lan-dinamiken sorkuntzan, eta, beste kontu askoren artean, arreta ipini da politikotzat hartutako gauza pertsonalen garrantzian, bai eta konfiantza eta ikaskuntza guneak sortzeak dakarren gaitasunean ere, ahalduz-prozesu indibidualak eta taldekakoak sustatu ahal izateko.

2. Praktika kulturalen eta tokiko tradizioen inguruan hausnartzea. Bi kontzeptu horiekin erreferentzia egiten diegu mota anitzeko adierazpenei, Euskal Herriko herrietako **talde-identitatearentzat** garrantzitsuak diren horiei. Praktika erreferenteak dira, baita identitate-, historia-, komunitate- eta afektibitate-sare sortaileak ere. Baina esan beharra dago, tradizioarekin batera, praktikaren kontzeptuaren alde egin dugula apustu; izan ere, uste dugu eraikuntza sozial dinamikoak direla, eta errealitate eta testuinguru sozialen bidez eraldatzen direla. Horregatik, ez dira aldaezin edo monolitikotzat hartu behar. Sexu-generoaren sistemaren antzera (eraikuntza sozial baten moduan ikusten badugu alda daitekeela ulertzen dugu), gure kultura eta tradizioaren ideia ere bizia da, eta zerbait dinamikoa denaren eta etengabeko sorkuntzan dagoenaren alde egiten dugu apustu. Eta ideia horri jarraikiz, praktika eta tradizio horiek izan dezaketen balioa aitortzearen alde

ere egiten dugu apustu, maskulinitate eta feminitate hegemonikoaren begirada eta errepresentazio tradizionalak mantentzeko eta legitimatzeko, edota alderantziz, genero-sorkuntzak eta identitate alternatiboak, eta ez bitarratak, sustatzeko.

3. Aniztasunaren eta begiradak zabaltzearen garrantzia. Proiektu honetarako biek dituzte inplikazio garrantzitsuak. Alde batetik, eta aurreko puntuan egindako hausnarketarekin koherentea izanik, praktika kulturei eta tradizioei, garatzen daramaten **denborarekin** ezinbestean loturatik izan gabe, eman nahi izan zaien begirada egongo litzateke. Esan beharra dago begirada ez dela zuzendu bakarrik *aspaldiko* tradiziora, baizik eta agian “gazteagoak” diren adierazpen batzuetara ere bai, baina horiek, aldi berean, talde-identitatearen ezaugarri eta erreferentzia kultural bihurtu dira. Beste aldetik, eta horrekin lotura eginez, **aniztasuna** premisa gisa izateko ideia egongo litzateke, orientazio-printzipio bat praktika kulturalen nahiz proiekturako pertsona- eta talde-erreferenteen identifikazioan. Ez gara ideia itxi batetik abiatzen, hau da, ez dugu pentsatzen zeintzuk diren Euskal Herriko tradizioak eta nortzuk protagonizatzen dituzten. Guk uste dugu etengabeko sorkuntzan dagoen kontu bat dela. Hala, praktikan edo tradizioan espezifikoa dena gailentzera eraman nahi zuten kategoria batzuen definiziotik abiatuta, aurrerago aipatuko ditugunak, garrantzitsua izan da proiektuarentzat esperientzia zabal eta amaiezin batzuk izatea. Apustu horrek proiektua zaildu lezakeela kontuan izan dugu, baina bereziki praktika eta tradizio horien begirada aberastuko zuen elementu bat bezala hartu dugu. Azkenik, praktika kulturaletan eta tradizioetan emakumeen partaidetza sustatzeko helburuari dagokionez, ez dago gidaliburu edo prozedura itxirik, baina estrategia edo esperientzia ezberdinekin topo egin dezakegu egindako ibilbide ezberdinekin, eta horietatik kolektiboki ikaskuntzak atera eta gelditzen diren etorkizuneko erronkak defini ditzakegu. Hainbat esperientzia aurki ditzakegu: partaidetza horri *kopuru* aldetik gehiago den begirada batetik ekin ahal izan dioten esperientziak, hau da, existitzen den praktika batean emakumeak barneratzea aurredefinitutako rolak aldatzea pentsatu gabe; edota beste esperientzia batzuek, emakumeen presentziaren eta rolen eztabaidatik abiatuta, praktika eta tradizioa eraldatu dute. Eta horien artean, beste hainbat ere aurki daitezke. Proiektuak horien guztien potentzialtasuna eta balioa aitortzen ditu, eta hortik abiatuz, eztabaidarako eta hartu-emanerako ekarpena egin nahi du.

2. Ibilbideak zehaztuz, mailetak eginez... Biarritzera goaz...

2.1. Bidaiaren prestaketa

Herri Zahar, Andre Berri proiektuaren lehen hilabeteetan proiektu guztietan nagusi diren **hiru galdekizunei** eman zitzairen arreta nagusiki: *zer* edo edukien definizioa; *zeintzuk* edo agente estrategikoen identifikazioa, eta *nola* edo ikuspuntuari edo tresna metodologikoei buruzko hausnarketa.

Lehenengoari, hau da, **prozesuaren marko eta ikuspegi teorikoaren** definizioari dagokionez, esan beharra dago hainbat iturri bibliografiko, dokumentu, ikerketa, artikulu, eta abar, aztertu zirela. Horiek, alde batetik, bisitatu behar genuen eremua apur bat gehiago ezagutzeko aukera eman ziguten, eta bestetik, aurretik aipatu dugun bezala, prozesu honekiko gure begirada mantenduko luketen oinarriak definitzeko aukera ere bai. Beharrezkoa iruditu zitzaigun esparru ezberdinetatik idatzitakoan sakontzea, esate baterako, kulturen, feminismoan, herri-partaidetzan... eta horietatik hainbat ideia ateratzea ere bai, ondoren guretzat erreferente ziren pertsonekin alderatzeko.

Denbora eskaini genion bigarren gaia izan zen hori, hau da, alderaketa hori pertsona gako horiekin. Zehatzak izateko, esparru akademikoko, administrazio publikoko eta kulturako pertsonekin elkarriketatu ginen, eta bakoitzak, bere ezagutzatik abiatuta eta irekitasun eta eskuzabaltasun osoz, jatorrizko proposamenari ekarpen eta iruzkin baliagarriak eman zizkion⁵. Hala, orientazioak txertatu genituen, alde batetik, proiektuaren begirada orokorrari zegokionez, aniztasunaren ideia horretan sakonduta; bestetik, metodologiari zegokionez, hasierako proposamena beste ikuspuntu batzuetako ekarpenekin osatuta, eta azkenik, esperientziei zegokienez, interesgarriak ziren batzuk identifikatuta, ondoren erreferentetzat izango genituenak.

Hirugarren eta azken postuan, prestaketa fase honetan, **giza eta material baldintzak** definitu genituen, gure ustetan beharrezkoak izango baitziren markatzen ari ginen bidean aurrera egiteko. Alde batetik, gure Topaketa egiteko gunearen aukeraketarekin eta pertsona parte-hartzaileen gonbidapen- eta laguntza-prozesuarekin zerikusia izan zuen guztia egongo litzateke. Garrantzia eman nahi genion zentzu zabalean arretari, Biarritzeko egonaldi hori atsegina izan zedin esfortzua egin beharko genuela jakinda eta baliabide materialak eta beste mota batzuetako baliabideak erabilita. Era berean, garrantzitsua zen nola komunikatzen ginen eta nola laguntzen genion bertaratutako pertsonen eta taldeen partaidetzari Topaketaren aurretik.

Bestalde, giza talde bat osatzeko lan egin genuen, eta talde horrek, hain zuzen, proiektuaren helburuei erantzun behar zien, eta ikuspuntu eta jatorri anitz hori ere islatu beharra zuen. Diziplina ezberdinetatik (esaterako, artea, partaidetza, feminismoa, ikerketa soziala...) prozesua lagunduko lukeen eta Biarritzen sortutako hurrengo pausuei forma emango zien talde bat izango litzateke. Alderatze- eta taldeko sorkuntza-guneak ezinbestekoak eta interesgarriak izan ziren talde horren kohesiorako eta harmoniarako, eta horren emaitza Biarritzeko Topaketaren azken programa izan zen.

5 Eskerrak Oier Arazolazari, Iñigo Lamarkari, Jone Martínezi, Mariluz Estebani eta Mireia Espiauri haien eskuragarritasunaren eta egindako ekarpenengatik, zalantzarik gabe proiektua aberastu baitute.

2.2. Nora zoazen ez ezik, norekin zoazen ere garrantzitsua da...

Proiektuaren beste une garrantzitsu bat *zeintzuk* horren definizioa izan zen, hau da, bidaia hau egiteko interesgarriak iruditzen zitzaizkigun agenteak definitzea. Modu horretan, praktika kulturalen eta tokiko tradizioen eta horietan indibidualki edo kolektiboki eginkizun garrantzitsu bat zuten agenteen **mapaketa** bat egin nahi izan genuen.

Mapa hori burutu ahal izateko, **bi ardatz** ezarri genituen, informazioa eskuratzeko, antolatzerako eta Topaketaren egitura pentsatzeko orduan erabilgarriak izan zitzaizkigunak. Lehen praktika kulturalena eta tokiko tradizioena izan zen, bigarrena, berriz, agenteen kategoriena.

Aipatu dugun moduan, proposamen honetan aniztasunak garrantzia handia izan du, eta mapa sortzerako garaian ere kontuan hartzekoa izan zen. Hona hemen lehen ataleko zenbait ideia: aintzat hartu nahi genituen pertsonen eta taldeen aniztasuna; tokiko tradizioak eta praktika kulturalak ulertzeko modu ezberdinen aniztasuna.

Modu horretan, kategoria itxiak edota baztertzailak sortu nahi izan gabe, eta era berean, praktika eta tradizio horietariko asko definitutako esparru bat baino gehiagotan koka daitezkeela ulertuta, interesgarria iruditzen zaigu honako hauei erreparatzea:

HITZA/AHOTSA: ahozkotasanari, hitzari, musikari... erlazionatuta dauden praktika eta tradizio kultural guztiak. Adibidez, bertsolaritza, musika adierazpen ezberdinak, idazketa, etab.

GORPUTZA/MUGIMENDUA: lehen esan bezala, hitzetik bananduta ez dagoela ulertuta, interesgarria iruditu zitzaigun mugimenduari, gorputzari, gorputz-adierazpenari lotutako praktika eta tradizioak biltzea. Esate baterako: dantza, antzerkia, kirol tradizionala...

KALEA/PLAZA: esparru publikoa okupatzearekin edota festen antolaketaarekin zuzenean erlazionatutako praktikak. Adibidez: desfileak, alardeak, danborradak, herriko festen antolakuntzako gune ezberdinak, etab.

MEMORIA/KULTURA-ERREFERENTEAK: emakumeen memoria berreskuratzearekin, kultura- eta tradizio-erreferenteak berriz eraikitzearekin eta abarrekin lotutako guztia. Adibidez, emakumeek herrietan eta hirietan utzitako aztarnen inguruko lana, emakumeek kulturaren duten ekarpenaren aitortzea, festetako irudien eta tradizioen dekonstrukzioaren inguruko hausnarketa, etab.

Zeintzuk zehaztearen lehen proposamen horri beste kategoria-ardatz bat gehitu genion, moduren batean edo bestean praktika eta tradizio kulturaletan emakumeen partaidetzan inplikaturik egon daitezkeen agenteen ideia horri erantzunez; zeintzuk egin zezaketen ekarpena proiektu honen helburuetan, bakoitzak bere jokabide eta esperientziatik. Honako hauek edukitzea gustatuko litzaigukeela definitu genuen: herritarrak kultura-elkarteetan antolatuta egotea; mugimendu feminista; maila ezberdinetako administrazio publikoak; unibertsitatea; komunikabideak; eta beste agente posible batzuk maila indibidualean.



Bi kategoria-ardatzak modu nahasian landu ziren eta aipaturiko esparru guztietako pertsonak eta taldeak ezagutu nahi izan ziren identifikatutako praktika eta tradizioen bloke bakoitzean. Lurraldeko oreka bat ere mantentzen saiatu zen, eta horretarako, Araban, Bizkaian, Gipuzkoan, Nafarroan eta Iparralden erreferenteak bilatu ziren. **Mapaketa lana** funtsean Internet bidezko bilaketaren eta aztertutako iturri bibliografikoetatik lortutako erreferentzien bitartez egin zen, baita gonbidapen-prozesu batekin ere, non laginketa elur-bola baten gisa erabili zen. Modu horretan, mapa osatzen joan zen emandako kontaktuei eta erreferentziei esker. Prozesuaren amaieran, 200 pertsona eta erakunde baino gehiago identifikatu genituen, eta horiekin bidaia honetarako kontaktu- eta gonbidapen-prozesua hasi genituen.

2.3. Bidaiatzeko beste modu batzuk sortzearen garrantzia...

Prestaketa hauetan hirugarren puntu garrantzitsua ea **bidai nola egin nahi genuen** izan zen, zein metodologia eta dinamika erabili behar genituen Biarritzeko gure Topaketan; izan ere, ezarritako helburuei erantzun behar zien, baita gune hori partekatu behar genuen pertsonen aniztasunari ere. Gogorarazi beharra dago Conferencia de Búsqueda de Futuro-ko interesgarriak iruditzen zitzaizkigun elementu batzuetatik abiatzen ginela, iraganetik etorkizunerako ibilbide horretatik, partekatutako eta desiratutako lekuak sortzearen garrantzitik. Eta hortik, beste ikuspuntu batzuetatik ekarpenak hartuz, gure ikuspuntua zein izango zen definitu genuen. Beraz, esan

dezakegu *nola* horiek aldatzeko beharra ikusi genuela; gida metodologiko propio bat egin behar genuela iruditu zitzaigun, honela sortuta egongo zena:

- ✓ une ezberdinak konbinatuta (begirada iraganera, orainaldira eta desiratutako etorkizunera), baita hausnarketarako eta lan indibidualerako eta talde lanerako gune ezberdinak ere
- ✓ azterketa-maila ezberdinak txertatuta: maila indibiduala, jatorrizko erakundeena; testuinguru soziala; legegintza- eta administrazio-ingurua, etab.
- ✓ gorputzetatik ideiak pasata eta gorputzak berriz pentsatuta
- ✓ sormenetik lan eginda, hura sustatuz, zainduz
- ✓ hierarkiak hautsiz eta irekitasunetik, entzutetik eta errespetutik lan baten alde apustu eginda
- ✓ konfiantzazko gune bat sortuta, positiboa eta eratze bidean dagoena
- ✓ aniztasuna eta aurkakotasuna kudeatuta
- ✓ plazera eta gozamina txertatuta

Horrekin guztiarekin bidaiako hainbat une planifikatu genituen, eta horietatik igarotzeko asmoa genuen galdera sortzaile eta gune eta dinamika ezberdineko galderen bitartez.

Lehenengo unea: Elkar ezagutzuz

Funtsezko unea izan zen hainbat gauzetarako: Biarritzen pertsonari harrera egiteko, asteburura bakoitza nola heltzen zen ikusteko, gu aurkezteko eta Gida metodologikoa erakusteko eta elkarbanatzeko; eta hurrengo egunetako lanaren oinarriak finkatzeko eta lan taldeak osatzeko.

Bigarren unea: Gogoratuz

Esperientzia ezberdinen aniztasunetik, iraganean tokiko tradizioetan eta praktika kulturaletan emakumeen partaidetza eta presentzia nolakoa izan den gogoratzen hasi ginen, betiere iragan horrekiko begirada partekatuta bat sortzen saiatuz.

Hona hemen bigarren une honetan lana eta hausnarketa bultzatzeko proposatu ziren galderetariko batzuk:

- *Zer ekarpen egin diezaiokezue iragan honen sorkuntzari partaidetzaren esparru ezberdinetatik? Nolakoa zen emakumeen partaidetza eta presentzia?*
- *Zer elementu partekatzen dute adierazitako esperientzia guztietan? Zergatik gertatu da egoera hori?*
- *Interesgarriak iruditzen zaizkizuen zer esperientzia ezagutzen dituzue maila pertsonalean? Eta herri- edo erakunde-/talde-esperientzia mailan? "Araua hautsi" dutenak edota iragan horretan aldaketaren potentzialtasuna izan direnak?*

- *Zergatik iruditzen zaigu (edo ez) garrantzitsua atzerako begirada hau?*
- *Uste duzue errealitatearen araberakoa den iraganeko begirada bat dugula? Zein zentzutan? Zertan?*
- *Zer elementuk zailtzen zuten emakumeen presentzia eta partaidetza hori? Eta zer elementuk sustatu edo sendotu?*

Hirugarren unea: Orainaldia definituz

Praktika eta tokiko tradizioetan emakumeen partaidetza eta presentzia egungo egoeran nola ikusten dugun sortzeko unea da, bertaratutako pertsona edo erakunde bakoitzak, bere esperientzia eta ezagutzatik, oraina irudikatzeko elementu garrantzitsuak eman ditzakeela jakinda.

Hona hemen proposatutako zenbait galdera:

- *Zein dira gure bizipenak? Nolakoa da emakumeen partaidetza gure taldeetan? Non daude potentzialtasunak, erronkak, etab.?*
- *Oro har, nola aurkitzen da emakumeen partaidetza hori? Zer gaitasun aurki ditzakegu hori burutu ahal izateko? Eta zer arrisku eta erronka?*
- *Zer elementu partekatzen dituzte Topaketan aurki daitezkeen praktika, leku, esperientzia, proiektu, eta abarrek?*
- *Zer zeregin dute agente ezberdinek? Zer eragin dute egungo egoeran?*
- *Nola gaude gure erakunde edo/eta partaidetza guneetan? Zer erronka, sendotasun, ikaskuntza gustatuko litzaiguke azpimarratzea?*
- *2. unean irudikatutako iraganean aldaketak nabari dira? Zertan?*
- *Zer modutan aldatzen du / edo aldatu beharko luke emakumeen partaidetzak praktika edo tradizioa?*
- *Tradizio berriak al daude? Sortu egiten dira? Nola?*

Laugarren unea: Desiratutako etorkizuna definituz.

Iraganera eta orainaldira egindako begiradetatik abiatuta, orain aurrera begiratzeko garaia da, 10-15 urteren buruan non egotea gustatuko litzaigukeen pentsatzeko garaia. Begiratu ea bertaratutakoen artean etorkizuneko egoera bat sor daitezkeen, alde batetik, desiratutakoa eta, bestetik, partekatutakoa, betiere Euskal Herriko praktika kulturaletan eta tokiko tradizioetan emakumeen partaidetzari dagokionez. Irudikatzeko unea da, etorkizuneko egoera hori posibletzat eta benetakotzat definitzeko.

Hona hemen une honetan proposatutako galderak:

- *Non eta nola gustatuko litzaidake aurkitzea emakumeak etorkizun horretan?*

- *Nola gustatuko litzaiguke egotea indibidualki eta gure erakundeetan?*
- *Nola gaintzen ditu etorkizun horrek orainaldian identifikatzen ditugun mugak eta erronkak?*
- *Nola sendotu ahal ditugu positibotzat identifikatutako elementuak?*

Bosgarren unea: Etorkizun horretara nola heldu planifikatuz.

Aurreikusitako azken unea da. Bertan definitu dugun desiratutako egoera horretarantz pausoak nola eman ditzakegun identifikatu behar da, zer nolako ekimenak egin ditzakegun epe motz, ertain eta luzean. Etorkizun horretara apur bat gehiago gerturatzean datza, oraindik errealago bihurtzean, eta, guztiok ekarpenak egin ditzakegula kontuan izanik, bideak eta pausoak irudikatzean.

Hona hemen une hau bidera dezaketen zenbait galdera:

- *Nola iris gaitezke desiratutako etorkizun horretara?*
- *Zer egin dezaket nik/partaide naizen erakundeak hori lortzeko?*
- *Zein gustatuko litzaizkiguke izatea hurrengo pausoak?*
- *Nondik jarraitu dezakegu bidea?*
- *Zein dira egin beharreko ekintza- eta jokaera-bide posibleak agente moten arabera?*
- *Zer konpromiso eraman ditzakegu Topaketa honetatik?*

Une horiek **igarotzen joateko**, lehen atala gehiago esploratzeko eta bigarrena diseinuan arreta gehiago jartzeko, tresna eta gune ezberdinak sortu ziren. Hiru ardatz nagusitan antola daitezke:

- 2. eta 3. uneetarako: lantalde txikiak, gida-galderekin eta laguntza metodologikoarekin, baita erabateko azalpen eta egiaztatzeekin ere.
- 3. unea lotzeko eta 4. eta 5. unek lantzeko: proiektzio- eta planifikazio-dinamika espezifikoak.
- Topaketa guztiko lotura moduan: jolasak, paseoak, performance, musika, lan eszenikoa...

Dinamiken eta tresnen definizio honetan, uneetan lana egiteko nahiz horietatik igarotzeko, arreta berezia jarri zen **sormen-modu ezberdinen arteko oreka bermatzean**. Pink Gorillas-ek egindako lana azpimarratu beharra dugu bereziki; izan ere, Topaketan erabiliko ziren zenbait dinamika diseinatu zituzten espresuki, batik bat, 3., 4. eta 5. uneetarako. Adibidez, "Euria ari du" Ane San Miguel eta Ixiar García

diseinatu zuten, eta "Tira bira" eta "Superkonferentzia", berriz, Galder Pérez eta Ixiar García (dinamika horietako batzuk puntu honetan aurkeztuko ditugu).

Berrikuntza-elementu horrez gain, gida honen sorkuntzan garrantzitsuak izan ziren **integritasuna eta antolatze gaitasuna**. Topaketak iraun bitartean, lotura mantentzeko ahalegina garrantzitsua izan zen, baita une ezberdinen arteko lotura egitea ere, gune hau finkatzeko nahi genituen printzipioei garrantzia emanez entzutetik, zaintzatik, errespetutik, gozamenetik... Eta aldi berean, taldearen artean konfiantza hori sustatzeko atsedeen-guneen eta gune informaleen garrantziaz jabetuz.

Pentsatzen dugu hau guztia **talde-dinamizatzailearen lanaren funtsezko zati bat dela**. Metodologia horiek baldintza berezi batzuk behar dituzte, eta talde horrek baldintza horien alde egin behar du metodologiaren garapenaren aurretik eta bitartean. Horiek, hain zuzen, etengabeko entzute aktibo bat behar dute bertan parte hartzen duten pertsonei arreta eta laguntza emateko. Beti jarraibide batzuk planteatzen dira pertsonek euren sormen-gaitasuna erakutsi ahal izateko, laguntza horrek babesten diela sentiarazteko. Horretarako, arreta berezia jartzen da komunikazioan eta parte-hartzaileen artean sortzen diren harremanetan. Gida hau xehatzeaz eta edukiez osatzeaz gain, talde dinamizatzaileak jatorrizko proposamen metodologiko hori jaso, laburtu, itzuli eta egokitu egin behar du, aurreikusitako helburuei erantzunez baina Topaketan gertatzen ari den errealitateari egokituz.

Topaketarako diseinatu ziren hiru dinamika aukeratu ditugu. Horiekin, bereziki, etorkizunerako begirada uneak landu ziren. Fitxa formatuan eta proposatutako bidai-ibilbide moduan aurkeztu ditugu. Esan beharra dago ibilbide horiek bidaiatzeko beste modu batzuetatik eta batzuetarako sortu direla. Hau da, orain arte adierazitako elementu asko kontuan hartzen ez badira, dinamikaren osagarriak direnak, geldialdiak eta ibilbidea egiten ariko gara baina bidaiak beste zentzu bat izango du.




Hiru ibilbide

1. ibilbidea. Tira Bira	
Zertarako sortu dugu?	<p>Dinamika hau Pink Gorillas-eko Ixiar García sortu zuen Topaketarako. Esan daiteke, dinamika honek orainaldia eta desiratutako etorkizuna lotzeko aukera ematen digula, sistema-begirada batetik. Horrez gain, aurretik egindako lanetik eta landuko dugun gaien paper garrantzitsu bat duten agente edo esparruen aurre-identifikazio batetik abiatuta, garatu daitezkeen ekintza jakin batzuk identifikatzeko aukera ematen du, eta horiek, era berean, beste aukera batzuk ematen dituzte: esparru bakoitzeko egungo egoera zein den balioztatzea; lortu nahi den etorkizuna zein den definitzea eta horretara gerturatu ahal izateko ekintza bat(zuk) zehaztea.</p> <p>Gunea okupatzeko beste modu batzuekin jolasteko eta esperimintatzeko aukera ere ematen du dinamika honek, baita imajinazioa eta sormena sustatzeko ere. Parte-hartzaileak</p>

	<p>mugimenduan daude, eta horrek erritmoa eta bizkortasuna bermatzen ditu.</p>
<p>Dinamikaren oinarriak</p>	<p>Dinamikaren garapenerako lurrean taula borobil moduko bat marraztuko da, eta bertan eztabaidatu beharreko gaien garrantzitsutzat identifikatutako esparruak egongo dira. Kasu honetan, hauek izan ziren identifikatutako esparruak: pertsonala, taldekoa, lege/administrazioa, hezkuntza eta komunikabideak. Erdian ezabatu beharreko elementuak (<i>zaborra</i>) eta berreskuratu nahiko genituzkeenak (<i>bihotza</i>) identifikatzeko gune bat egongo da.</p> <div data-bbox="774 600 1182 996" data-label="Diagram"> <p>The diagram is a circle divided into four quadrants by a vertical and a horizontal line. The quadrants are labeled: 'PERSONAL' (top), 'COMUNICACIÓN' (right), 'EDUCACIÓN' (bottom), and 'LEYES / ADMINISTRACIÓN' (left). In the center of the circle, there is a heart icon and a trash can icon. Dashed lines connect each quadrant to the center, forming a square shape around the central icons.</p> </div> <p>Esparru horiek pertsona parte-hartzaileak antolatzeke baliokidute. Hala, horietako bakoitzerako talde bat egingo da, hau da, batzuk "esparru pertsonaletik" hitz egingo dute, beste batzuk "taldekotik", beste batzuk administrazioetik, beste batzuk komunikabideetatik eta beste batzuk hezkuntzako esparrutik.</p> <p>Horrenbestez, dinamika honetan "nondik hitz egiten dugu" (taulako lauki ezberdinetatik mugitzeko izango dudana rola) eta "zein esparruri egiten diogu erreferentzia" (esparru honetan ekintza jakin bat proposatzen da) ezberdintzen ditugu.</p>
<p>Nola eraman dugu praktikara?</p>	<p>Hurrengo pauso hauek proposatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Baldintzei arreta jartzea sormen-lana hazteko. Gune isila, denbora oparoa, ura eta jateko zerbait eta parte-hartzaileen beharrei erantzuten dion eta sormen-energia sustatzen duen pertsona bat, haratago eramateko. • Gunea prestatzea. Esan bezala, dinamikak mahai-jolas baten antza du, taula batean oinarritzen baita. Lehen pausoa, lurrean marraztea izango da. Txartelak ere eduki behar dira proposatzen diren ekintzak idazten joan ahal izateko. • Dinamika zehaztasunez azaltzea. Parte-hartzaileak 2 edo 3 pertsonako taldeetan banatu, hitz egin behar duten esparruaren arabera. Beste mahai-joko batzuen antzerakoa da, baina kasu honetan kolorezko fitxak izan

	<p>beharrean, esparruak daude.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Talde horietako bakoitzak nortzuk diren apur bat gehiago zehaztu behar dute. Adibidez, hezkuntza esparruan daudenak, esaterako, Gipuzkoako herri batean dagoen eskola publiko bateko irakasle talde bat izan daitezke, berdintasun gaiak lantzeko interesa dutenak; taldeko esparruan daudenak, berriz, euren herriko festak antolatzeko ardura duten talde bat izan daitezke; edo esparru pertsonaletik hitz egiten dutenek euren burua irudika dezakete edo beste paper bat defini dezakete, jolastu nahi dutenetik, adibidez, bertsolaria izan nahi duen 18 urteko neska gazte bat. • Bere egiten duten identitate hori dinamikan zehar mantendu beharko dute. Hurrengo pausoa da ulertzea ekintzak identitate horretatik proposatu beharko dituztela taulako esparru guztietan. Beste era batera esanda, talde guztiak lauki guztietatik pasako dira. Helburua da lauki horietako bakoitzean proposatu nahiko luketen edo euren ustez egin beharko litzatekeen ideien bat idaztea. • Adibide bat: komunikabide gisa jolasten duen taldea irrati libre bat izan daiteke, kulturaren emakumeek duten presentziari buruzko programa egin nahi duena. Beraz, horretarako egin ahalko liratekeen saioak proposatuko ditu, maila pertsonalean, talde mailan, lege- eta administrazio mailan eta hezkuntza mailan. Modu horretan, taula bakoitzetik pasako dira. • Talde bakoitzari lauki bakoitzean hamar minutu ematen zaizkio, bira osoa egiten den arte, hau da, hasiera puntura itzuli arte (talde bakoitza bere esparruko laukian). Ideien txartelak lurrean itsatsiko dira, esparru bakoitzaren barruan. Horrez gain, ezabatu eta berreskuratu nahi ditugun ideiak ere identifikatu ahal izango dira (zaborraren eta bihotzaren ikurrak). • Bira osoa eman eta gero, talde bakoitzak zein ideia izan dituen azalduko du, eta horrez gain, horiek burutzeko zer beharko luketen edota dinamika honetan suertatu zaizkien erronka eta aukerak ere aurkeztu beharko ditu. • Dinamizatzaileak aurkeztutako elementu horietako batzuk laburtu eta erantzun labur batekin amaituko du.
<p>Dinamizatzaileek kontuan hartu beharreko elementuak</p>	<p>Dinamika hau ez da erraza, bereziki "nondik hitz egiten dugu" eta "zein esparruri egiten diogu erreferentzia" bereizketa horregatik. Hori dela eta, dinamizatzaile(ar)en papera garrantzitsua dela iruditzen zaigu honetarako:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Dinamikak iraun bitartean sortzen diren zalantzak konpontzeko. Gogoratu aurretik aipatutako oinarriak. • Sormena sustatu ditzaketen ideiak edo galdera

	<p>sortzaileak emateko.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Dinamikaren denbora eta erritmoa kudeatzeko. • Taldeei libratu eta laguntzeko eta ideien zehaztasunean eta irudikapenean laguntza emateko. • Azkenik, landutakoa itzultzeko, partekatutako elementuak eta dinamikan identifikatutako erronkak eta gaitasunak bilduz.
--	--

2. ibilbidea. Euria ari du	
Zertarako sortu dugu?	<p>Dinamika hau Pink Gorillas-eko Ane San Miguelek eta Ixiar Garcíaak burutu zuten, eta oraingo egoera desiratutako etorkizuneko egoerarekin lotzeko aukera ematen digu. Dinamika honen bitartez, diagnostiko ohikoenen logikak gainditu nahi dira (batez ere gustatzen ez zaigun hori identifikatzea) eta etorkizun-proiektzioa erdigunean jarri nahi da (gustatuko litzaigukeena imajinatzea eta desiratutako egoera horretara nola gustatuko litzaigukeen gerturatzea/gertura ahalko ginatekeen pentsatzea).</p> <p>Bestalde, dinamika honen bidez, pertsonak leku eta rol ezberdinetan koka daitezke, bultzada edo freno gehiago dituztenetan; gunearen okupazio mota ezberdin batekin jolastu eta esperimintatu dezakete; eta imajinazioa eta sormena sustatu ditzakete. Parte-hartzaileak mugimenduan daude, eta horrek erritmoa eta bizkortasuna bermatzen ditu.</p>
Dinamikaren oinarriak	<p>Dinamikak funtsezko bost ikur ditu, eta horiek, egokienak diren materialak erabiliz, moduren batean lurrian marraztu behar ditugu:</p> <div style="display: flex; align-items: center; margin-bottom: 10px;">  <p>Hodeia: desiratutako etorkizuna, egotea gustatuko litzaigukeen unea eta aurrera begirako begirada kokatzen diran bertan.</p> </div> <div style="display: flex; align-items: center; margin-bottom: 10px;">  <p>Loreontzia: orainaldia kokatzen da bertan. Nola eta non gaude orain hodeitik egiten diguten proposamenari dagokionez?</p> </div> <div style="display: flex; align-items: center;">  <p>Aingura: erronkak, zailtasunak, "ezin da" eta "horrela ez" horiek, eta abar, jasotzen ditu, baita segurtasuna ematen diguna eta "geratzea" edo "egotea" egiten gaituena ere.</p> </div>



Ureztontzia: aukerak irudikatzen ditu, ideiak ematen ditu, desiratutako etorkizun horretarako bidea irekitzen digu.



Ur-tantak: orainalditik desiratutako etorkizun horretara igarotzeko lagun dezaketen ideiak dira. Loreontzia ureztatuko dute, eta gure lorea hodeiraino iristea egingo dute. Ikur batetik besterako bidea trazatzeko aukera emango dute.

Bost ikurrek lotura dute. Helburua da hodeitik egindako proposamenetik abiatuta (*etorkizuneko egoera*) loreontzitik (*orainaldia*) eman beharreko pausoak zehazten joatea. Horretarako, ur-tantak izango ditugu (*proposamenak/ideiak*), hodeitik (*nola egin genuen*) edota ureztontzitik (*zer bururatzen zaigu*) etor daitezkeenak. Ainguratik, berriz, ideia horiek ezeztatu egingo dira, zehaztu, zalantzan jarri. Truke eta elkarrizketa horren bidez, input eta beharrezko pauso guztiak definituko dira desiratutako etorkizun horretara iristeko. Orainaldiak eta etorkizunak ez dute aurka egiten, bidean aurki ditzakegun une ezberdinak direla esan dezakegu; modu horretan, gerturatzea egingo dien pauso horiek batera identifikatu behar dituzte. Hala, tanta guztiak bateratzen badira, orainaldia desiratutako etorkizunarekin lotu ahalko dugu lore baten forman.




<p>Nola eraman dugu praktikara?</p>	<p>Hurrengo pauso hauek proposatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Baldintzei arreta jartzea sormen-lana hazteko. Gune isila, denbora oparoa, ura eta jateko zerbait eta parte-hartzaileen beharrei erantzuten dion eta sormen-energia sustatzen duen pertsona bat, haratago eramateko. - Azpimarratzen da garrantzitsua dela norbera bere zaintzaz arduratzea, gogoan izatea inork ez duela nahi ez duen zerbait egingo, eta egin nahi duen zerbait egiteari ez diola utziko. Norberak gainerako pertsonak gogoan izango ditu, epaitzea saihestuz eta komunikazioa zainduz konfiantza giro bati eta sormen kolektiboari mesede egiteko. - Gunea prestatzea. Ikurrak, tantak... marraztea interesgarria da. Esaterako, lurrean marrazten badira, jendea horietako bakoitzaren barruan koka dadila, horrek bete beharko den rola bereganatzeko aukera ematen baitu. - Taldea lautan banatuko da. Azpitalde horietako bakoitzak etorkizun hori aukeratu beharko du, eta modu positibo eta ondo egindako modu batean azalduko du, dinamikan gehitzeko nola posibleetan pentsatuz. Gertuago edo urrutiago dagoen etorkizun batean kokatzen diren ekintzak izan daitezke, irismen gehiago edo gutxiago dutenak, haietara iristeko pauso gehiago edo gutxiago behar dituztenak... - Azpitalde/pertsona guztiak ikur guztietatik pasako dira. Azpitalde bateko proposamenetako bat aukeratuko da (hodeian kokatuko da), eta gainerako taldeak geratzen diren ikurretan kokatuko dira. - Dinamizatzaileak rol ezberdinak gogoraraziko ditu eta dinamikari eta elkarrizketari hasiera emango dio. Ideiak (tantak) idazten eta lurrean jasotzen joango dira, eta loreontziaren eta hodeiaren bidea trazatuko da. - Pauso guztiak ditugula uste dugunean, puntu guztiak lotuko dira, eta lore bat osatuko da. Txandatu egingo gara eta dinamika errepikatu egingo da bigarren azpitaldearen proposamenarekin. Guztiek beste rol bat hartuko dute. Dinamika errepikatu egingo da taldeek pentsatutako etorkizuneko proposamen guztiak landu arte. - Amaitzeko, dinamizatzailea(e)k proposatutako guztia laburtu eta itzuliko du.
<p>Dinamizatzaileek kontuan hartu beharreko elementuak</p>	<p>Dinamizatzaileak rol garrantzitsu bat du. Haren lanerako funtsezko hiru gako identifika daitezke:</p>

	<ul style="list-style-type: none"> • Galdera sortzaileak ematea, sormenari mesede egin diezaieketenak, adibidez: Zer elementuk definitzen dute <i>lortutako etorkizun</i> une hori? Zer pauso eman ziren? Nortzuk? Nola gaude gaur egun? Zergatik? Zer baliabide ditugu? Noren artean egingo da bide hori? Zergatik? Zailtasunak eta erronkak kanpoan daude ala gureak dira? • Giroa zaintzea eta pertsona guztiak jolastu beharko duten rol ezberdinetan gustura senti daitezen laguntzea. Dinamikak dituen helburuak orekatzea jolas-, debate- edota proposamen-erritmoekin. • Taldeari libratzea eta laguntzea. Azkenik, landutakoa modu sortzaile batean itzultzea.
--	--

3. ibilbidea. Prentsa-atzekoa	
Zertarako erabili dugu?	<p>Dinamika performatibo⁶ bat da, eta aurretik definitutako desiratutako etorkizun horretara iristea ahalbidetzen diguten ekintza zehatzez jabetzeko aukera ematen digu; plangintza landu dezakegu, ekintzak pentsatu ditzakegu, baita horiek nola garatu ere, denbora tarte motz edo ertain batean.</p> <p>Gainera, dagoeneko lortutako ekintza-lerro horien aurkezpen positiboak, alde batetik, aukera ematen du etorkizun horren irudikatze hori lantzeko "errealago eta posibleago eginez", eta bestetik, ekintza-lerro horiek garatzeko eman beharreko pauso zehatzen inguruan hausnartzeko motibatzen du.</p>
Dinamikaren oinarriak	<p>Dinamika prentsaurreko baten moduan garatzen da. Parte-hartzaileen zati batek albiste moduan lehenetsitako ekintza(k) aurkeztuko ditu gainerako taldearen aurrean (kasu honetan, horiek kazetariak izango dira). Albiste/Eskuratutako etorkizun formatuan kontatuko dute aukeratutako ekintza hori. Gainerako parte-hartzaileek ekintzaren garapenari buruz galderak egin beharko dituzte: <i>nola egin zen?</i>, <i>noren artean?</i>, <i>noiz?</i>, eta, horrez gain, proposamena ulertzeko egokiak iruditzen zaizkien galderak ere egingo dituzte.</p>

6 Hemen informazio gehiago aurki dezakegu:

	
<p>Nola eraman dugu praktikara?</p>	<p>Hurrengo pauso hauek proposatzen ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Gunea prestatzea. Mailak, aulkiak, mikrofonoak eta prentsaurreko-areto batean identifikatu daitezkeen beste elementu batzuk ipini. - Taldea lau edo bost pertsonako azpitaldeetan banatu. Azpitalde bakoitzak egitea gustatuko litzaieken ekintza identifikatu beharko du. Ekintza hori lortuta dagoela adierazi behar da, gertatu den zerbait dela eta prentsari kontatzera gatozela. Azpitalde bakoitzak bere aurkezpena prestatzeko aukera izango du, baita ekintza hori burutzeko eman zituzten pausoak zehazteko ere. - Prentsaurrekoa hasiko da. Azpitalde batek burututako ekintza aurkeztuko du. - Gainerako azpitaldeek une horretan kazetari papera hartuko dute, eta ekintza hori ulertu eta zehazteko egokiak diren galderak egingo dituzte. - Informazio nahikoa dutela uste dutenean, paperak aldatuko dituzte, eta beste azpitalde batek egingo du aurkezpena proposamen guztiak amaitu arte. - Dinamika bukatzeko, dinamizatzaileak itzuliko du landutako, modu laburrean.
<p>Dinamizatzaileek kontuan hartu beharreko elementuak</p>	<p>Haren lanerako funtsezko hainbat gako identifika daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Dinamikaren helburuak eta bertan egongo diren rola gogoraraztea, prentsaurrekoaren egoera hori errespetatuko dela saiatur. • Giroa zaintzea eta pertsona guztiak jolastu beharko duten rol ezberdinetan gustura senti daitezen laguntzea. Dinamikak dituen helburuak orekatzea jolas-erritmoekin. • Galdera-txandak kudeatzea eta denbora kontrolatzea.

Bidegurutzeak eta saihebidak

Atal honetan, bidaiaren prestaketa horietan talde dinamizatzaile bezala desafiatu edo zaildu ziguten hainbat gai identifikatu dira modu sintetiko batean.

- Lehen denbora izango litzateke, baita iradokitzaile eta zabala den ikuspegi teoriko baten arteko tentsioa edota markatutako datekin eta denbora murriztuarekin proiektu bat egiteak ematen dizkigun aukera errealak ere.
- Bigarren gaia proiektu hau nondik sustatzen den izango litzateke. Kasu honetan, Donostia 2016tik, eta ez kontuan hartu nahi diren pertsona edo taldeetatik. Desafiatu egin zigun elementu bat izan zen hori; alde batetik, agente batzuentzat deialdiak zuen "legitimitatearengatik", eta bestetik, gonbidapenezko parte-hartze bat izanik (gonbidapen zabal bat, ahalik eta pertsona eta talde gehien anima zitezten), proiektuak iraun bitartean parte-hartze horren markoak zabaltzeko irekitasuna izan behar genuela ulertzeko garrantziagatik.
- Horri dagokionez, eta hirugarrenik, gonbidapenak onartu zituztenen ratio baxua egongo litzateke, bere garaian begirada anitza izan zuena. Alde batetik, nahiz eta talde askok ezin izan zuten etorri, gaiaren inguruko interesa nabaria zela ikusi ahal izan genuen. Bestetik, metodologia talde murriztago batera egokitzea pentsatu behar izan genuen, baita aniztasuna kopuruaren aurretik zegoela ulertu ere. Azkenik, agenteei elkartrukeko eta lan taldeko hiru eguneko parte-hartze batera gonbidatzeak zer nolako zailtasunak dituen ulertzeko aukera eman zigun. Elementu "berritzaile eta zehaztugabeago" horrek jardunaldi klasikoago batzuen aurrean, agente batzuen parte-hartzea galarazi zuen, baina Topaketan bertan ikus ahal izan genuen moduan, beste batzuentzat motibagarria izan zen.
- Laugarren eta azken postuan, metodologiari eta dinamikei dagokionez, esan dezakegu prestakuntza-prozesu osoa ikaskuntza bat izan zela. Zehazki, proiektu honetarako talde dinamizatzailea *ad hoc* sortu zen, diziplina eta lan-esparru ezberdineko pertsonekin, horregatik, talde lanerako eta lan koordinatutako akordio eta baldintza-sorkuntza horiei denbora eta ahalegina eskaini zitzaizkien. Prozesu honetan ere zalantzak eta debateak sortu ziren, eta horiek azkenean landu genuen proposamenaren mota definitu zutela uste dugu: dinamika bakoitzean landu beharreko edukiak istearen eta gehiago bideratzearen edo irekiago uztearen arteko tentsioak; dinamizazio eta laguntzaren zereginari hurbilketa ezberdinak; programa berritzaile baten aurrean, maila askotan talde dinamizatzailea desafiatzen zuena, martxan jarritako ezjakintasunaren kudeaketa; eta, azkenik, erdian prozesuaren emaitza neurgarriak kokatu beharrean *prozesua bera* kokatzen dela gogoratzearen garrantzia. Gertatu ahal zenari irekita geunden, prozesua parte-hartzaile guztientzat baliagarriak izango ziren ikaskuntzen identifikazioarekin amaitu ahal izatea gustatuko litzaikeela jakinez, baina ziurgabetasun moduko batekin eta Topaketak iraun bitartean erritmoak eta egin beharreko moduak markatuko zituzten "halabeharrez zerbait sortzearen" logiketan ez erortzea saihestuz.

Herri zahar **Andre berri**

Apirilak 1 ostirala / viernes 1 de abril

1. momentua: Elkar ezagutzen

Momento 1: Conociéndonos

- | | |
|----------------------|--|
| 11.00 | Ongi Etorria / Bienvenida
Salda beroa
Espazioari bisita / Visita el espacio
Nire paseoa + Nire elementuak /
Mi espacio + Mis elementos |
| 12.30 | Elkar ezagutzen / Conociéndonos |
| 14.00 / 15.30 | Bazkaria / Comida |
| 15.30 / 16.00 | Bazkal hoztu-berotu / Calentamiento |
| 16.00 / 16.15 | Sorginkuntza |

2. momentua: Oroimena

Momento 2: Recuerdo

- | | |
|----------------------|--|
| 16.15 / 18.45 | Oroimena gogorarazi / Recordando |
| 18.45 / 19.15 | Aurkikuntzak partekatu /
Compartir descubrimientos |
| 19.15 / 21.00 | Landutako ideiekin esperimentatzen
/ Trabajando con las ideas elaboradas |
| 21.00 | Afari / Cena |

Apirilak 2 larunbata / sábado 2 de abril

10.00 / 10.15	Egun on / Buenos días
10.15 / 10.45	Super konferentzia / Súper conferencia
10.45 / 11.15	Sorginkuntza

3. momentua: Oraina zehazten

Momento 3: Definiendo el presente

11.15 / 14.00	Orain eta hemen / Aquí y ahora
14.00	Bazkaria / Comida

4. momentua: Etorkizuna zehazten

Momento 4: Definiendo el futuro

15.30 / 16.00	Eskutik-paseoa / Paseo de la mano
16.00 / 19.00	Euria ari du + Tira bira
20.30	Afari berezia / Cena especial

Apirilak 3 igandea / domingo 3 de abril

5. momentua: Planifikazioa

Momento 5: Planificación

11.00	Impro beroketa / Calentamiento-impro
11.30	Prensa-atzekoa
13.00	Planifikazioa / gertuko etorkizuna / urruneko etorkizuna / Planificación / Futuro cercano / Futuro lejano
13.45	Agur borobila / Despedida redonda
14.00	Bazkaria / Comida Laster arte!

3. Bidaiaren kronikak. Biarritz, 2016ko apirila, plazak plazeretik okupatuz.

Egunkari honetan Biarritzeko topaketaren (2016ko apirilaren 1etik 3ra) zertzelada batzuk jasotzeko unea iritsi da. Kontaketaren zati honi hasiera emateko **azkenean bertan elkartu ginenak** aipatu behar ditugu: topaketan bere izenean parte hartzen zuten 32 pertsona. Bere izenean parte hartu bazuten ere, hainbat talde ordezkatzeko zituzten: dantza taldeak, teatro taldeak, alardeak, erakunde feministak, emakume pilotariak, perkusio taldeak, esparru akademikoa, administrazio publikoak... Irekiera eta konfiantza osoz, hiru lan eta talde gozameneko egun horietan parte hartu zuen talde desberdina. Hona hemen esperientzia hori partekatu zutenen zerrenda:

Aitziber Zapiain, Alixe Rodríguez, Andion Iturbide, Ane San Miguel, Ane Zabala, Araitz Rodríguez, Cony Carranza, Elena Santos, Elizabeth Olaskoaga, Eneko Balerdi, Estibaliz Villa, Florencia Savanti, Garoa Lekuona, Gotxone Tutor, Itzea Urkizu, Itziar Gandarias, Jon Martin, Juan Urretavizcaya, Leire Ugalde, Leire Zendoia, Maider Eguzkitza, Maitane Maritorea, Maite Gelbentzu, Maddi Suarez, Margaret Bullen, María Jesús Torres, María José Noain, Naroa Iturain, Pilar Etxaniz, Rut Suso, Xabier Kerexeta eta Yuli Estupiñán.

Hiru bidaia-egun horietan gauza asko egiteko aukera egon zen, seguru asko, lerro hauetan jaso dezakeguna baino askoz gauza gehiago egiteko. Ideia horietako batzuk laburbiltzen saiatuko gara, gure **programan aurreikusitako zenbait uneren egituraren** arabera. Ondoren, iruzkin orokorrakoak egingo ditugu. Adierazi beharra dugu **dokumentu honek ez duela adostasunik bilatzen**, baizik eta Biarritzen azaldu ziren ideiak antolatzen dituela, eta, edonola ere, talde guztiek eremu eta une ezberdinetan egindako lana islatzen duela. Ikuspegi aniztasunari fidela izateko ahalegina egiten du, bai eta dokumentu hau idazteko arduradunak bigarren mailako azterketa bat egiteko ere. Horren bitartez, bertan proposatutako guztiaren arteko lotura eta elementu komunak ezartzeko saiakera egingo dugu.

3.1. Bidaiaren geldialdietan ikusitakoa aztertuz: Zer elementu ikusi ziren iraganaren, orainaldiaren eta etorkizunaren azterketan?

Lehenengo unea: Elkar ezagutuz

Lehen une hau **oso garrantzitsua** izan zen aurkezpenerako, gunean eta lan-programan kokatu ahal izateko eta taldeak osatzeko. Iritsiera unetik iruditu zitzaigun **zaintza** kontuan hartzeko kontu bat zela, eta proposamenean garrantzia izan behar zuela. Horrez gain, garrantzitsua zen programa eta proposamen metodologikoari ere heltzea, kontziente ginelako parte- hartzaileentzat gauza asko oraindik lausoak eta zehaztugabeak zeudela. Nahiz eta iritsiera kasu batzuetan mailakatua izan zen, gehienok ostiral goizean elkartu ginen.

Ideia nagusi gisa, aipatu beharra dago lehen une horretan dagoeneko gerturatutako eskuragarritasuna identifikatu genuela, inguruan nabaritzen zen nolabaiteko hasieragi- giro on baten moduan. Gainera, inguruak, eguraldi onak, eta abarrek, aldeko baldintza batzuk genituela pozez igartzeko aukera ematen ziguten, egun horiek gozatu eta aprobetxatu ahal izateko.

Taldeak osatzeko unea ere izan zen. Metodologiaren atalean adierazi dugun bezala, iraganeko eta orainaldiko azterketa-uneak lantalde txikietan zeuden antolatuta. Bertaratutakoak taldeetan libreki kokatzea aukeratu genuen, talde dinamizatzailearen aldetik aurre-esleipen bat egon gabe. Proiektuaren ikuspuntuari dagokionez, proposamena lau talde sortzea zen, Hitza/Ahotsa, Gorputza/Mugimendua, Kalea/Plaza eta Memoria/Erreferente kulturalak, eta bosgarren talde bat irekita uztea, gainerako lau taldeetan ikusten ez zen horientzat. Bosgarren gune horri izena bertan zeudenek jarri behar zioten, elementu aglutinadoreak, hau da, taldeari identitatea emango zioten

elementuak zein izan zitezkeen akordio batera iritsi behar zuten. Azkenean, **sei talde** osatu ziren modu honetan:

- ❖ **Gorputza/Mugimendua taldea**
- ❖ **Hitza/Ahotsa euskarako taldea**
- ❖ **Hitza/Ahotsa gaztelaniako taldea**
- ❖ **Kalea/Plaza taldea**
- ❖ **Memoria/Kultura-erreferenteak taldea**
- ❖ **Gune intimoa taldea (Topaketan sortutako bosgarrena)**

Bigarren eta hirugarren unea: Iragana gogoratuz eta orainaldia definituz

Atal berean **iraganaren begiradan eta orainaldiaren definizioan** identifikatutako elementuak aurkezten ditugu, taldeetan ikusi ahal izan zen moduan, **azterketa ia modu gurutzatu batean egin** baitzen. Egun emakumeen egoera eta posizioari dagokionez gauza asko aldatu diren arren, argi ikusi zen urteak pasa ahala oraindik gauza batzuk antzeko jarraitzen dutela. Aipatu beharra dago talde batzuk landu zutena elkarbanatzeko ahozko adierazpena erabiltzeaz ez ezik, beste mota batzuetako aurkezpenak ere egin zituztela, eszeneen, gorputzaren eta mugimenduaren interpretaziotik.

Lehenik, talde bakoitzak identifikatutako ideia garrantzitsuak iruditzen zaizkigunak aurkeztuko ditugu, eta ondoren, laburpen bat egingo dugu, ohiko hausnarketa ardatz batzuk biltzen dituen. Gogorarazten dugu **ez direla elementu eztabaidatuak eta adostuak**, baizik eta talde ezberdinetatik irten ziren ekarpen batzuen laburpen eta itzultze antolatatu bat.

❖ **Gorputza/Mugimendua taldea**

IRAGANA: talde honek **gorputzaren irudizko taldetik eta emakumeen mugimendutik** irakurketa bat egitea zuen helburu, baita horrek guztiak nola izan dezakeen bere translazioa adierazpen eta praktika kultural ezberdinetara ikustea ere.

Garrantzitsutzat identifikatutako elementu horietako bat izan zen emakumeen gorputzaren eta bizi-zikloen inguruan dagoen **tabua**. Beldur horretatik abiatuta emakumeen **gorputzak eta sexualitateak kontrolatzeko** saiakera egin da, eta beharrezko mekanismo guztiak jarri dira martxan horretarako. Adierazpen eta praktika kulturelek ere kontrol horri erantzun diote (eta erantzuten diote), eta iraunarazi eta errepikatu egin dute.

Talde honek arreta **dantzan** jarri zuen, baita mugimenduan ere gure *gorputzen eta gorputzean duen* botere-adierazpen gisa. Adibidez, euskal dantzan gizonezkoen eta emakumezkoen gorputzek sinbolikoki sentimendu eta errealitate ezberdinak adierazten dituztela identifikatu zuten. Gizonezkoek mugimendu- eta adierazpen-askatasun gehiago dutela ematen du; emakumeek, berriz, mugimendu kontrolatuago batekin dantzatzen dute, feminitate tradizional hegemoniko baten ezaugarriei jarraiki. Horrek honakoa planteatzen die: nork eta nola okupatzen dira guneak? Emakumeok dantzatzen dugunean zenbat okupatzen dugu? Parte hartu al dugu (edo parte hartzen al dugu) beste emakume batzuen gorputzaren eta askatasunaren zentsuran eta kontrolean?

Taldeak Euskal Herrian zer gertatu den aztertzeko eta bizitako historiak erresistentzia-gorputzak sortu dituela ikusteko beharra azpimarratu zuen. Horrez gain, horrek gaur egun gure egoteko, hautemateko eta mugitzeko modua baldintzatu duela gehitu zuten.

ORAINALDIA: Egungo egoerari heldu zionean, taldea “Martekoak dirudigula” ohartu zen, buru handi eta gorputz txikiekin. Deskonexio handi bat dago **gorputzaren eta buruaren** artean. Oso bistakoa ikusten zuten atalen deskonexioa, ez dago auto-ezagutzarik, ez gaude konektaturik. Modernitateak aurrerapen asko ekarri zituela uste ahal zitekeen, baina iruditzen zitzaien, era beran, deskonexio hori sortuz eta sakonduz joan zela.

Horri aurre egiteko, auto-ezagutzari eta mugimenduari arreta berezia jarri zioten. Mugimenduak sendatu egiten gaitu konektatzen digun bitartean, eta gure gorputza ezagutzeko eta entzuteko aukera ematen digu.

Talde honek ere desirari, plazerari, eta abarri buruz hausnartu zuen. Gure gorputzekin nondik gauden galdetzen ziren: arduratik, tradizioz, *gustatzetik*, probokatzeko edo disfrutatzeko? Garrantzitsutzat ikusten zuten esploratzeko aukera eta askatasuna ematea norberari, **desiratik galdetzeko** non egon nahi dugun gure gorputzekin.

Zer gertatzen da praktika edo tradizio kultural batean parte hartzeko borrokatzen dugunean eta plazara irtetea hain atsegina egiten ez zaigunean? Askotan borroka nekagarria izan daiteke, eta horrek ez digu **plazerari garrantzia ematen** uzten, eta ondorioz, pentsatzen dugu baldintzak hobek direnean plazer hori sentitu ahalko dugula. Taldean “gerorako ez uztearen” beharra eta urgentzia identifikatu zen, unean bertan plazerarekin dantzatzea, zer eta nola dantzatu nahi dudana erabakitzea... Gauzak aldatzen ari dira baina benetako desira oraindik galduta dagoela dirudi.

Azkenik, zer motatako gorputzen inguruan hitz egiten ari garen eztabaidatzeko beharra ikusi zen, gorputz normatiboak, trans gorputzak... Uste zuten gorputzen bitartez guztiok performancea egiten, gogor egiten edota aldatzen ari garela, eta hori argi izanik, errazagoa eta interesgarriagoa izan daitekeela beste batzuekin zubiak egitea edota moduren batean araua hautsi nahi dutenekin ere zerk lotzen gaituen jakitea.

❖ **Hitza/Ahotsa euskarako taldea**

IRAGANA: Historia erreparatzean, talde honek, adibidez, emakumeek kulturaren parte hartu dutela ikusi zuten, bertsolariak izan direla, eta gero, bertan egotea debekatu zitzaizela. Ondorioz, praktika hori gizonezkoentzat bakarrik dela ematen du. Ideia berdina emakumeentzat antzerkian, idazketan... Zailtasunak egon arren, emakumeak egon dira, baina jakinarazten dute informazio hori, ezagutza hori, ezkutatu egin dela.

Talde honek ere **esparru publikoen eta pribatuen** inguruan hausnartu zuen, hau da, emakumeen ahotsa historikoki nola egon den etxeko guneari “mugatuagoa”, eta emakumeei zenbat kostatu zaien eta kostatzen zaien maila askotan plaza okupatzea. Emakumeak ateratzen zirenean (eta ateratzen garenean), egiten zutenagatik ez ezik, nola janzten ziren, zer fisiko zuten, eta abar, epaitzen zitzairen ere. Askoz ere kontrolatuagoak eta kritikatuagoak izan dira.

Kodeen inguruan ere hausnartu zuten, esate baterako, umorean. Emakumeek umore-sena ez dutenaren ideia horren inguruan gogoeta egin zuten, edo nola umorea historikoki gizonezkoen begiradetatik eta/edo gizonezkoen ahotsarentzat sortu den. Talde honi garrantzitsua iruditzen zitzaion honakoa galdetzea: zerk ematen digu plazera emakumeoi?

ORAINALDIA: Iraganaren azterketan planteatu dugun moduan, talde honek emakumeen esperientzian eta partaidetzan dagoen ikusezintasuna eta ezjakintasuna azaldu zuen. Horregatik zioten **historia berridatzi** behar dugula. Horretarako, neurri batzuk hartzeko beharra ikusten da: artxibo bat egin, zabaldu, kontatu... Une honetatik aurrera, gertuko orainaldi batean.

Desiraren aurreko hausnarketari eta emakumeei parte hartzea bultzatzen dien horri helduz, talde honek **beldurra, kontrola eta kritika** identifikatu zituen emakumeei plazara irteteko orduan baldintzatzen dieten faktore gisa. Hasteko, bistakoa ikusi zuten guneak gizonezkoek hartzen jarraitzen dituztela. Baina, aldi berean,

emakumeen aldetik uko egiteko edo parte ez hartzeko nolabaiteko joera identifikatu zuten. Tarte bat dagoela dirudienean, emakumeek batzuetan beldur hori adierazten dute, *ez ditut emakume guztiak ordezkatzeko, handi geratzen zait...* Eta baietz esaten bada, beldurak hor jarraitzen du, zalantzan jartzen baita jendeak protagonismoa nahi ote duen edo hitza eduki nahi duen, zerbait negatiboa izango balitz bezala, eta funtsean, “guri ez dagokiguna”. Eta horri kontrol soziala gehitzen badiogu, gizonezkoen kritika, *zu ez zara hemengoa, hau ez da zure lekua...* Talde honek senti daitekeen presio handi hori identifikatu zuen, esperientzia batean emakume guztiak ordezkatzeko behar mota bat, batzuetan ezinegona sortzen diguna.

Gaur egun emakumeen pareko presentzia hori bermatzen saiatzeko kupoez edota kuotek **neurri zehatz** moduan balio dezakete, baina **emakumeak egon daitezzen ez ezik, nola dauden ere** ikusi beharra dago. Modu horretan, **gune seguruen** beharra identifikatu zen, emakumeek plaza okupatzeko baldintza egokiak sortzeko beharra. Eta emakumeentzat garrantzitsua izango zen ideia: hanka sartu ahal izatea, kanpotik eta barrutik kritika bikoitzaren aurrean kemena izatea.

Horregatik, talde honentzat nahiz aurrekoarentzat, orainaldiaz hitz egitean, ezin da albo batera utzi plazeraren inguruko hausnarketa, funtsezkoa baita. Emakumeak gaur egun plazeretik ari al dira parte hartzen? Pentsa dezakegu, era berean, emakumeek egun sufritu egiten dutela etorkizun hobeago bat lortzeko, eta taldeak hori aldatzeko beharra ikusi du: gaur egun gozatu nahi dugu, etorkizunean ere gozatzeko, ez dugu sufrimenduan egon nahi.

❖ **Hitza/Ahotsa gaztelaniako taldea**

IRAGANA: Talde honek aurreko taldearekin iraganari buruzko hausnarketa asko partekatu zituen. Lehendabizi, emakumeen bizitzak **ezagutzeko zailtasunaz** ohartu ziren, euren partaidetza nola izan den jakiteko... Ez daude erreferenteak, ezabatu egin dituzte, ezjakintasun handia dago.

Iraganaren begirada horretan, **aniztasunaren** eta askotariko diskriminazioaren begirada gehitzea ere garrantzitsutzat hartu zuten. Emakumeen egoera eta posizioa ezagutzeko ahaleginak egitea iradokitzailea iruditu zitzaie, baina ezkutatuagoak zeuden horiek oraindik ere gehiago ikusarazteko asmoz. Nolakoa izango zen, adibidez, emakume gorren partaidetza?

Beste alde batetik, hausnartu zuten ahotsa **maiztasuna eta tonua** ere badela. Historikoki emakumeei gutxi eta baxu hitz egite horrek nola markatu dien identifikatu zuten.

ORAINALDIA: Ezagutza eta erreferenteen gabeziatik hasita, talde honek ezkutatuta egon diren emakumeen bizitzak eta esperientziak errekueratzeko, eguneratzeko eta balioa emateko beharra ikusi zuen. Beste aldetik, dagoeneko **beste erreferente batzuk sortzen ari direla** onartzeko apustu egin zuten; apustu argi bat egin zuten euren, eta Biarritzen parte hartzen ari diren gainerako pertsonak eta erakundeak, egiten dutenarekin erreferenteak direla eta gauzak aldatzen ari direla ulertzeko.

Talde honetan artean, antzerkian edota musikan profesionalki lan egiten zuten emakumeak elkartu ziren, eta orainaldiko egoeraren inguruko hausnarketa, neurri batean, begirada horretatik egin zuten. Hala, planteatu zuten “gai feministekin” lotuta (haiei bertan kokatzen diete) **seinalatutako lan-hilabeteak** daudela, martxoa (martxoaren 8agatik) eta azaroa (azaroaren 25agatik). “Aldarrikatzeko” hilabete ofizialak direla dirudite, orduan antolatzen baitira eduki feminista duten ekintzak. Baina urteko gainerako hilabeteetan euren proposamenak agenda kulturalan sartzea kosta egiten da.

Horrez gain, azaldu zuten badirudiela batzuetan feminismoa *modan dagoela*, eta horrek inplizituki indargabetzeko arriskua dakarrela. Bereziki garrantzitsutzat identifikatu zuten administrazio ezberdinetako kultura-alorretan ezagutza eta sentsibilitate feminista duten pertsonak egotea, proposamen feministarekin eta emakume eta gizonen arteko berdintasunarekin koherenteak diren programaketak lortzeko.

Beste alde batetik, **emakume artista** gisa, gaur egun oraindik artisten artean lan garrantzitsu bat egin behar dela iritzi zuten, adibidez, emakumeek diruarekin duten erlazio konplexua gainditzeko eta indartzeko, eta egiten dena aitortu eta balioztatu ahal izateko.

Azkenik, egun **hezkuntza** aldatzeko premia ikusi zuten, **artistikoa eta sormenezkoa dena sozialki balioztatzeko** beharra; izan ere, besteekiko garrantzia gutxiago izan duen ikasgaitzat hartu baita beti. Hori mesedegarria izan daiteke kulturari duen garrantzia sozialki ematen hasteko. Era berean, hezkuntza-sisteman feminismoaren gabezia ikusi dute, eta hori, hain zuzen, beharrezkoa da emakume eta gizonen errealitatea aldatzeko. Hezkuntzak horretaz jabetu behar du.

❖ **Kalea/Plaza taldea**

IRAGANA: Talde honetan, beste batzuen artean, berdintasun-alarde ezberdinetako emakume parte-hartzaileak bildu ziren. **Iraganeko begirada partekatu** horretan, identifikatu zuten begirada horri berriz begiratu ahal zaiola, berriz aztertu daitekeela... Ez baita zerbait itxia, ez finkoa, ezta estankoa ere. Hura **berridazteko interesetik eta beharretik** abiatu ziren, beraz.

Beste aldetik, identifikatu zuten, iraganean nahiz orainaldian, genero-sistema eta **horrek dakartzan ezberdintasunak errepikatu egiten direla, konstante bat direla**. Testuinguru eta garai ezberdinetan partekatutako egoerak identifikatu zituzten, Baita, adibidez, haietako batzuk bizi izan zutena ere orain dela 20 urteetako alardeetan parte hartzean. Zailtasun eta erronka guztiak beste leku batzuetan errepikatzen direla dirudi. Historia ez da zerbait itxia; gauza asko ez dira gainditu emakumeen partaidetza zuzenari dagokionez.

Emakumeek plazak okupatzeko dituzten zailtasunen inguruan hausnartu zuten, eta desiraren gaia ere ukitu zuten. Iraganerako begiradatik identifikatu zuten atzean, zalantzarik gabe, **historikoki deuseztatu zaigun gune bat hartzearen** ideia dagoela, gaur egun ere garrantzia izan jarraitzen duena.

Horretaz gainera, talde honek **historiari eta memoriari** buruz hausnartu zuen. Haietako asko euren herrietako festetan emakumeen presentzia berdintasunean bermatzeko hainbat urtetan egindako ahaleginak egitetik datoz, eta, beraz, euren historia pertsonalaren eta kolektiboaren parte diren bizipen ugari dituzte. Zentzu horretan, iraganerako begirada hori burutzean, garrantzitsua iruditu zitzaizen hura memoriaren inguruan lan egiteko garrantziarekin lotzea. Honakoa galdetzen zuten: Zerbait berria sortu al daiteke gertatu denaz jabetu gabe? Zer garrantzia izan dezake historia berreskuratzeak eta emakumeen begiradatik eta bizipenetik aldarrikatzeak eta ezberdintasun egoerak gainditzeko bizipenak berreskuratzeak? Nola egin diezaiokegu aurre gizartean eratzen den amnesiari, bilatutako nolabaiteko ahanzturari? Nola elkartu gogoratzeko behar hori sortzeko desioarekin, betiere plazeretik gertuago, minetik baino?

ORAINALDIA: Talde honek taldeko esperientzien **elementu komunei eta ezberdintasune** buruz hausnartu zuen. Hala, herri batzuetan emakumeen partaidetza modu arazotsu batean egin dela eta egiten jarraitzen dela ikusi zuten. Beste herri batzuetan, berriz, modu natural eta onartu batean gertatzen da; eta beste batzuetan, partaidetza horri ekin zaio tradizioa arriskuan zegoelako eta indartu egin beharra zegoelako.

Gaur egun, esperientzia horiek baztertuta daude, eta horiek **ezagutzea, ikastea eta partekatzea** funtsezkoa iruditu zaie. Talde honentzat administrazio publikoak, eta neurri handi batean, tokikoak eta udaletxeetakoak, zeregin garrantzitsu bat du festetan eta tradizioetan emakumeen partaidetza ekitatiboari dagokionez. Hala, eta nahi hori adierazten dutenetan arreta jarritz, bi jarrera mota bereiz daitezke: lehena, jarraitzearena eta eredu izatearena; eta beste kasu batzuetan, haziren bat baldin badago, zentzu horretan prozesu herrikoi bat, administrazioaren zeregina zaintzea eta indartzea da. Beharrezkotzat ikusi zuten kontu horien inguruan gehiago ezagutzen joatea.

Beste ikuspuntu batetik gauzak antolatzeko zailtasunak ere identifikatu zituzten. Hori guztia emakumeen kontua baino ez dela ikusten jarraitzen da, eta guztia guk egin behar dugula ematen du, arazoa identifikatu eta soluzio bat martxan jarri. Eta bururatzen ez bazaigu, hori ere emakumeon arazoa da. Modu horretan, gaur egun guñeak sortzea oraindik erronka bat dela azaldu zuten, esate baterako, festetan berdintasun begirada horrek egon behar du, hori zaindu egin behar da, baita guñe horiek landu ere.

Beste alde batetik, emakumeen partaidetzaren inguruko **diskurtsoa** ikertuta, zenbait arrisku identifikatu zituzten. Feminismoarekiko dagoen (eta egon den) izen galtzea eta gutxiespena arduratzekoa zen. Baita partaidetzarekin ados daudela adierazten duten diskurtsoak ere, beti aukera-askatasuna, aniztasuna, eta abar, zaindu behar direla defendatzen dutenak. Kasu honetan, argi ikusi zuten patriarkatu neoliberal eredia; aniztasun horren izenean guztia onartzen du, baita emakumeek ez parte hartzea ere. Azkenik, diskurtsoei dagokienez, gaur egun herri-galdeketa egiteko ideian arrisku berri bat egon zitekeela hausnartu zuten. Ez zuten ulertzen praktika zehatz batean emakumeek parte hartu nahi duten edo ez galdetzeko beharra, partaidetza hori eskubide baten gisa onartuta egongo ez balitz bezala, baizik eta iritzi-kontu baten gisa.

Talde bezala, eta iraganari buruzko hausnarketetatik eta gainerako taldeetan partekatu denetik abiatuta, hainbat urte borrokatzen egon ostean euren nekea identifikatu zuten, eta euren ibilbidean erruak, minak eta zailtasunek zer garrantzi izan duten, eta orain nola dauden ere bai. Gauzak horrela, **plazera berreskuratzea** oso beharrezkoa ikusi zuten, erdian jartzea. Hori pertsona berriekin edota festara gehituz doazen emakume eta gizon gazteekin lotura egiteko modu bat izango litzateke. Argi dago, orainaldi horretan begiratzean, aire freskoaren, belaunaldi-berrikuntza baten, umorearen, artearen, sormenaren... beharra identifikatu zuten, baita sareen garrantzia ere.

Iragana aztertzean esaten zuten bezala, plazak okupatzea historikoki emakumeei ukatu zaien zerbait izan da, eta orain, beste emakume batzuek iristea zein zaila den

ikusten jarraitzen dute. Lehen beti gunea erakusteko, konkistatzeko, borrokatzeko behar hori aurkitzen zuten. Zentzu horretan, ideia horiei buruz hitz egin zuten beste talde batzuetako aurkezpenekin identifikatu ziren: Nola gaude? Nola ari gara parte hartzen? Minetik, plazeretik, beharretik?

❖ Memoria/Kultura-erreferenteak taldea

IRAGANA: Talde honek iraganerako bere begiradan argi eta garbi identifikatu zuen gure kultura-erreferente gehienak gizonezkoak direla. Gainera, kultura eta artea sortzen zuten emakumeen artean ere aitoren falta bat ikusi zuten. Esate baterako, emakume idazleei lana "lapurtzen" zieten, kasu askotan euren senarrek edota familiakoek, edo gizonezkoen izenorde batekin firmatzera behartuta sentitzen ziren.

Talde honetan, besteak beste, emakume pilotariak parte hartu zuten, eta euren bizipenetatik **erraketan ibiltzen zirenen** historia berreskuratu zuten, emakume guztien historiarako esanguratsua baitzen. Emakume horiek jolastu egiten zuten, atzerrira bidaiatzen zuten txapelketa ezberdinetara joateko, dirua irabazten zuten... Baina hori emakume gisa egin behar zutenetik eta egin ahal zutenetik kanpo geratzen zela jo zen, emagalduta gisa tratatzen hasi zitzaizkien eta desagertu egin ziren frontoetik, kaletik...

Historian emakumeen zeregina **ezkutatuta eta isilpean egotea** nahi zela ematen zuen. Zenbait izen berreskuratzeko lan handia egin dela iritzi zuten, zer egiten zuten, nolakoak ziren euren bizitzak... Baina oraindik ahanzturan asko geratzen da.

Horrez gain, tradizionalki gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat jotakoari buruz ere hausnartu zuten, eta, bereziki, **gorputzei** buruz hausnartu zuten, nola uste izan den kirol zehatz batzuen praktika emakumeentzat egokia ez dela izan euren gorputzei eragiten zitelako (esate baterako, eskuak emakume pilotarien kasuan). Feminitatearekin lotutako balio tradizional horiek (emakumeek izan ditzaketen gorputzak, jarrerak eta ekintzak) neurri batean gaur egun ere jarraitzen dute.

ORAINALDIA: Egungo egoerari begiratuta eta taldeko emakume pilotarien esperientziatik abiatuta, **beldurrak** ahazten doazela sentitu zuten, zer behar zuten esaten zuten, eta egiten dutenari balioa ere ematen zioten. Aurreiritziak desagertuz doaz, pixkanaka izan arren.

Proposatutako agente edo esparru ezberdinen azterketatik abiatuta eta **komunikabideen** esparrua aintzat hartuta, hausnartu zuten komunikabideak direla gaur egun ezberdintasuna sorrarazten dutenak, maskulinizatuta daudela iritzi zuten,

baita gizonezkoek parte hartutako albisteei balio eta tarte gehiago ematen zaiela ere. Hori aldatzeko premia ikusi zen, jendearengana iristeko modu bat izaten jarraitzen baitu, pentsaera horiek aldatzeko modua.

Erakundeei dagokienez, haiek zuten zeregin garrantzitsua argi ikusi zuten. Dirua emateaz ez ezik, tarteak utziz edota emakumeek protagonizatutako ekimenak erakutsiz eta lehenetsiz ere lagundu dezaketen **ideia berreskuratuz** zuten, esparru instituzionalari buruz partekatzen zituzten esperientzia batzuetatik abiatuta. Legeak beharrezkoak dira, baina bistakoa da egun ez direla nahikoa, betearazi egin behar baitira. Beste alde batetik, eskoletako lana modu kritiko batean aztertu zuten; izan ere, berdintasunaren aldeko alaketan garrantzia du.

Azkenik, interesgarria iruditu zitzaie azpimarratzea emakumeek indar gehien elkarrekin doazenean dutela, eta, beraz, emakumeen arteko **elkartasuna** defendatu zuten, eta erraza ez izan arren, oraindik bizi ditugun ezberdintasun egoera horiei aurre egiteko modu bat izan daitekeela ikusi zuten.

❖ **Gune intimoa taldea (Topaketan sortutako bosgarrena)**

IRAGANA: Talde hau Topaketako parte-hartzaile batzuen proposamenetik sortu zen, eta euren aurkezpenak gorputzarekin, beste dinamika eta formatu batzuekin egin zituzten iraganaz nahiz orainaldiaz hitz egin zutenean. Gune intimo hori taldeen proposamen orokorrean falta zitekeen leku bat iruditu zitzaie, baita erosotasunean hitz egiteko leku bat ere. **Intimoa, pertsonala dena**, hausnarketa hauetan beharrezkoa dela adierazi nahi zuten. Hortik abiatu behar zen hausnarketan aurrera egiteko.

Iraganera begiratu zutenean identifikatu zuten gauzetako bat **parte hartzearen eta protagonista izatearen arteko ezberdintasuna** izan zen. Ziurrenik emakumeek moduren batean edo bestean hartzen zuten parte, baina parte hartze horretako protagonistak al ziren? Erabaki zezaketen?

Atzerako begiradan argi ikusi zuten etxeari lotutako guztia emakumeen gauza zelako pentsamendua zegoela, eta horrez gain, Euskal Herrian matriarkatu bati buruzko mito bat "sortu" dela. Historia berraztertzerako garaian, ikusezina ikustarazteko eta mito horietan esku hartzeko beharra adierazi zuten, ikusteko benetan nola funtzionatzen zuten, nor sortzen zituen, zergatik sortu ziren, zeri erantzuten zioten...

Beste alde batetik, **landari edota baserri begirada** bat botatzeko proposatu zuten, esparru horretan emakumeen partaidetza eta presentzia nolakoa zen ikusteko. Begirada kritiko bat egiteko baina, aldi berean, galdu diren ezagutza eta jakintza asko errekuperatzeko balio zuena.

ORAINALDIA: Kasu honetan, **desira- eta beldur-guneak** identifikatzeko lan egin zuten, eta desio eta beldur hori gorputzeko ataletan kokatu zituzten, haien usteetan egongo ziren lekuetan. Une askotan, beldurraren eta desiraren atal horiek errepikatu egiten dira, berdina dira. Hausnarketa horiek, zer desio dugun, zeri diogun beldurra, zergatik... oso garrantzitsutzat jo zituzten erlazionatzen hasi aurretik, talde handira edota plazara irten aurretik. Horrela, horri denbora eskaintzeko beharra adierazi zuten, emakumeen nahi guztiak identifikatzeko, gure guztionak, parte har dezagun lortzeko.

Jarraian, **laburpen** bat aurkeztuko dugu, non taldeek iraganean eta orainaldian egindako lanaren ardatz nagusiak biltzen diren. Laburpen hau Biarritzeko saioak iraun zuen bitartean egin zen, eta kontuan hartu behar da beste elementu batzuk jaso eta taldekako laukietan agertzen diren ideiak modu ezberdin batean aurkeztu daitezkeela; izan ere, talde dinamizatzaileak bigarren mailako azterketa bat egin du eta geroagoko idazketa lanean osatu dira. Taula formatuan aurkeztuko dugu informazio hori, aurkezpen ezberdinetan erreferentzia egin zitzaien **lau esparrutan** banatuta: **pertsonala; elkarrekin, kidego-taldeak, esparru kolektiboa; erakundeak; eta beste esparru edo agente batzuk (horien artean hezkuntza eta komunikabideak)**. Gainera, ekarpenak banatu ditugu, alde batetik, **potenzialtasun edo positiboagotzat** identifikatu direnak, eta bestetik, **erronka eta muga** gisa hartu direnak. Horrez gain, eztabaidan erabatean suertatu ziren hausnarketa batzuk ere sartu ditugu.

Iraganari buruz

Honako elementu komunak identifika ditzakegu, orainaldiari buruz egin den azterketarekin zuzenean lotuta daudenak:

- Emakumeen gorputzen eta bizitzaren kontrola konstantea izan da eta oraindik ere bada. Praktika eta tradizioak kontrol horretatik sortu dira, eta mantendu eta erreproduzitu egiten dute kontrol hori.
- Praktika horiek emakumeentzat eta gizonentzat hartutakoaren ideia itxi eta dikotomiko bati erantzuten diote. Hori ikus daiteke, adibidez, mugimendua ulertzeko moduan, umorean, hitzan, gunea okupatzeko moduan...
- Plazak okupatu dituzten emakumeak, haiei tradizionalki egokitu zaienetik atera direnak, zigortuak eta zehatuak izan dira.
- Ezjakintasuna eta ikusezintasuna adierazi dira: ez dakigu nolakoa izan den emakumeen

partaidetza hori, eta erreferenteak falta zaizkigu, emakumeen esperientzia eta figurak ezkutatuta egon baitira. Horrenbestez, historia berrirakurri eta berridatzi behar dugu, emakumeak protagonista diren beste kontakizun batzuk sortu. Gainera, ezjakintasun hori oraindik ere nabarmenagoa da normatiboak ez diren emakumeen eta gorputzen kasuan.

- Azkenik, historia ez da zerbait itxia eta burutu. Kontakizun ofizialari, kontaktu digutenari, mitoei, eta abarri, begirada kritiko bat botatzeko garrantzia nabari da, baita emakumeak benetako protagonista diren memoria kolektibo bat sortzeko zer aldatu behar den ikusteko garrantzia ere.

Orainaldiari buruz

	Esparru pertsonala	Elkarteak, taldeak, esparru kolektiboak	Erakunde-eremua	Beste esparru eta agente batzuk
Aspektu positiboak/potentzialtasunak	<p>Emakumeen partaidetzari buruz hitz egitean, plazeraren garrantzia azpimarratu da. Plazera da bidea: beharrezkoa da orain disfrutatzea etorkizunean ere disfrutatu ahal izateko.</p> <p>Desioarekin eta gozamenarekin konektatzeko lehentasuna ere bai. Emakumeei non eta nola egon nahi dugun galdetzeko askatasun horrek zer suposatzen digun aztertu behar da.</p> <p>Kode feministetatik, pribatua denaren eta plazaren arteko beharrezko lotura ikusi da, pertsonala denaren eta politikoa denaren artekoa. Gai hori bistakoa izan zen esperientzia ezberdinen, indibidualetan edota taldekoetan, partekatutako elementuak aztertzerako garaian. Modu horretan, emakumeen</p>	<p>Tradizioetan elementu berriak pixkanaka txertatzeko lana ikusi zen, gaitza izan arren. Esperientzia positiboak berreskuratzeko beharra ikusi zen zentzu horretan, erreferente gisa balio ahalko zutenak era berean.</p> <p>Erreferenteen gaiarekin jarraituz, elementu positibo bat zen erreferente gisa ezagutzearen ideia. Gure praktikekin errealitatea eraldatzen ari gara.</p> <p>Ziurtasun bat argi zegoen: taldean emakumeak indartsuagoak dira. Gure artean zubi lanak egitea lehentasunezkoa da, baita errealitatea eraldatu nahi duten besteekiko zerk lotzen gaituen jakitea ere. Proposamen ezberdinen artean, garrantzia eman nahi zaio sareak eta aliantzak sortzeari.</p> <p>Eta poztasunetik lan egiteko apustua, aldi berean,</p>	<p>Administrazioek zeregin garrantzitsu bat dute. Administrazio batzuetan, ikus puntu feminista duen programaketa dagoela ikusi da.</p> <p>Gainera, joka dezaketen rola anitza izan daiteke. Baliabideak eman behar dituzte, praktika hori errazten dituzten baldintzak sortu eta ikusgarritasunean lagundu.</p> <p>Berdintasuna sustatzearen alde egiten duten administrazioei dagokienez, zeregin bikoitz bat ikusi zen: irautea eta erreferente izatea; edo modu naturalago batean gertatzen ari diren prozesuak babestea eta zaintzea. Egiteko modu ezberdinak izan daitezke, baina biek balio dute, eta gainera, sakonago ezagutzeko beharra daukagu.</p>	<p>Komunikabideei dagokienez, iritzi-sortzaile gisa duten garrantzia berresten da (horrenbestez, ikuspuntu feminista batetik lan egingo balitz, jarreraren eta rolen aldaketarako tresna izan zitezkeen).</p> <p>Hezkuntzaren esparrua ere garrantzitsua da. Beste modu batean lan egiteak izango lukeen potentzialtasuna identifikatzen da, feminismoa zeharkako gaitzat hartuta eta artistikoa denari eta kulturari beste balio bat emanda.</p>

	<p>elkartasuna eta maila ezberdinetan ahalduzko- prozesuak sustatu behar dira, potentzialtasun moduan agertzen ziren estrategia feminista ezberdinak sortu behar ditugu, ezberdintasunak, erronkak eta beldurrak gaituzteko.</p>	<p>elementu positiboa, potentzialtasuna eta desioa dena.</p>		
<p>Erronkak/ mugak</p>	<p>Gorputzaren eta buruaren artean deskonexio handia dagoela identifikatu da. Guztientzat erronka handi bat da konexio hori berriz ere lortzea.</p> <p>Emakumeen partaidetza publikoari erreferentzia egitean, haren errepresentazio anitz eta posibleetan, hainbat sentimendu nabari daitezke: beldurra, autozentsura, kontrol soziala, errua... Beldurra epaiketari, esango ote dutenari, ezer ez egiteari, beste emakume batzuk ordezkatzearen presioari... Horrek guztiak zaildu egiten du emakumeek plazeretik parte hartzea.</p>	<p>Jende berria behar da, aire freskoa, urteak lan egiten eta borrokatzen ari diren emakumeei laguntzeko. Neke sentimenduak daude, mina pilatzearena... Beraz, hori aireztatzeko beharra ikusi da, beste leku batzuetatik sortzen hasi behar da iragana ahaztu gabe.</p> <p>Emakume artistek ere euren bide berdinean dauden beste pertsona batzuk aurkitzeko beharra ikusten dute.</p> <p>Desiotik parte hartu ahal izateko mugatzaile bat da ez dagoela segurtasun gunerik, enpoderatzaileak direnik.</p> <p>Erakundeetan ere barne-kontraesanak daude, eta horiei ekin egin behar zaie, baita gaituzte ere.</p>	<p>Erakundeek, festetako programaketek, programaketa kulturalak... ez dituzte beti proposamen feministak onartzen. Askotan politikoki zuzena denean geratzen dira, seinalatutako egunetan.</p> <p>Administrazioek erantzukizun politikoarekin jardun behar dute, baita Legea bete ere. Lege hori, batzuetan, borondatezko zerbait da, eta jokabideak zenbaitetan sentsibilitatearen, gauza pertsonalen, borondate politikoaren eraginpean daude.</p> <p>Auzian jartzen dira eztabaida eta estrategia batzuk, esaterako, herri-galdeketak.</p> <p>Kuotak identifikatzen dira tresna gisa, ez jomuga gisa. Ez da zenbakia bakarrik kontuan hartu behar, baizik eta erronka da aztertzea emakumeak benetan nola ari diren parte hartzen.</p>	<p>Hezkuntza esparru estrategiko-tzat hartzen da, baina baliabideak, formakuntza, ikuspuntu feminista... falta zaizkio.</p> <p>Komunikabideek, gaur egun, ezberdintasuna-ren transmisioan paper garrantzitsu bat dute: nori galdetzen diote? Zer galdetzen dute? Haien jarrera aztertu behar da begirada kritiko batetik.</p>

Taula honen irakurketan ikusi ahal dugun moduan, taldeek, euren iraganeko eta orainaldiko azterketan eta elementu positiboen eta erronken identifikazioan, desiratutako horretara heldu nahi zuten, emakumeen eta gizonezkoen partaidetza ekitatibo bat lortzeko “egin beharko eta egin ahalko liratekeen” gauza horietara. Iragana eta orainaldia nahastuz joan ziren moduan, aurrera begiratzea eta pentsatzea ere konstante bat izan zen. Hori aberasgarria izan zen, modu natural batean funtzionatu zuen, eta bideko diskurtsoak eta uneak elkartu zituen. Jarraian, diseinatutako proiektzioen dinamikekin egindako lan espezifikoagoan sortu ziren ideiak aurkeztuko ditugu.

Laugarren eta bosgarren uneak: Desiratutako etorkizuna definituz eta etorkizun horretara nola heldu planifikatuz.

Bidaiaren kronika honekin jarraituko dugu **etorkizunari begira** egin zen lana aurkezteko. Aurretik planteatu dugun moduan, proposamen metodologikoaren funtsezko atal bat proiektzio hori zen, oraingo egoeraren azterketatik abiatuta, **epe motz, ertain eta luze batean non egotea eta hara nola heltzea gustatuko litzaike** identifikatzeko aukera emango ziguna. Lan horretarako une eta dinamika ezberdinak genituen. Horietako hiru dokumentu honetako bigarren atalean azaldu ditugu: *Tira Bira, Euria ari du eta Prentsa-atzekoa*. Dinamika horietako bakoitzak bere espezifikotasunekin ekintza-bide posibleak definitzen eta etorkizuneko egoerak errealitatera ekartzen lagundu zuen. Lortutakotzat planteatu zituzten, horretarako eman beharreko pausoak identifikatzearen erronkatik abiatuta.

Une biziak izan ziren, eta jokua, rol ezberdinen eta gunearen okupazioaren bitartez, ideia eta proposamen ugari atera ziren, baina txosten honetan guztiak biltzea ezinezkoa da. Gainera, dinamika hauen bitartez landutakoa gune informalogetan trukaturatukoarekin osatzen da. Aisialdirako eta elkar ezagutzeko denbora horietan ideia horiek aurrera eramateko aukera balioztatu zen, baita beste ideia ugari batzuk sortzeko ere.

Horrenbestez, kontziente izanik gai asko kanpoan gera daitezkeela edo aberastasun hori⁷ guztiz jaso ezin ahalko dela, puntu honetan hiru dinamika horietan ateratako ideia nagusiak modu sintetiko batean aurkeztuko ditugu. Lehenik, **Tira Biratik ateratako** zenbait elementu aurkeztuko ditugu (dinamika horrek, praktika eta tokiko tradizioetan emakumeen presentziaren eta partaidetzaren azterketan, estrategikotzat hartutako esparruen inguruan lan egiteko aukera eman zigun). Hala, eta kategoria horiek

7 Adibidez, Euria ari du edo Prentsa-atzekoa dinamiken ideia nagusiak jasotzerakoan, ez genituen dinamikaren garapenean identifikatu ziren zailtasunak zehaztasunez txertatu, ezta eztabaida edo talde-hausnarketa sortzeko eta laguntzeko egin ziren galderak ere, nahiz eta horiek guztiak aurkeztutako proposamenei forma eman zieten.

zeintzuk ziren modu labur batean gogorarazteko, ekarpenak bildu ziren esparru pertsonalerako/taldeko esparrurako, erakundeen/legeen esparrurako, hezkuntzaren esparrurako, komunikabideen esparrurako eta baztertu nahi ziren edota positiboak zirelako indartu nahi ziren elementu orokorretarako. Taldeek, jolasten zuten rol ezberdinetatik, desiratutako etorkizun hori lortzeko beharrezkoa ikusten zutenaren edo esparru bakoitzari eskatuko lioketenaren inguruan erantzuten saiatzen ziren.

Taula aurkeztu baino lehen, azken bi ideia. Alde batetik, gogorarazi beharra dago ez direla adostasunetik landutako ideiak, eta beste aldetik, eginda jasotzen ditugula, beti ere planteatu zena errespetatzen saiatuz, ondoren azterketa labur bat egiteko.

<i>Tira-Bira...desiratzen dugun etorkizun horretako zenbait ideia esparruetan antolatuta</i>	
<i>Esparru pertsonala/Taldeko esparrua</i>	<p>Beldurretatik eta zentsuretatik libratu nahi dugu.</p> <p>Huts egin ahal dugu, akatsak egin ditzakegu, ezjakintasuna izan dezakegu...</p> <p>Ondo bizitzeko libre sentitu nahi dugu.</p> <p>Porrotaren aurrean ez dugu frustraziorik sentitu nahi, eta umorearekin jarraitu behar dugu.</p> <p>Pertsonei modu kolektibo batean zaindu nahi/behar diegu, baldintza indibidualak kontuan hartuta.</p> <p>Taldeetan konpromiso indibiduala, konfiantza eta askatasuna egotea nahi dugu.</p> <p>Gure taldeetan aniztasunarentzat tartea eta errespetua izan behar dugu.</p> <p>Aldizka, gure aurrerapenak eta erronkak berrikusi behar ditugu begirada feminista batetik, eta egiten ari dena modu konstante eta aktibo batean erakutsi.</p> <p>Taldean aurrerapenean gozamina kontuan hartu beharra daukagu, garaipenak ospatu behar ditugu.</p> <p>Guneak sortzeko borrokatu nahi dugu pertsona libre gisa hezteko, izan emakume edo gizon.</p>
<i>Erakundeen/legeen esparrua</i>	<p>Entzutea eskatzen dugu, baita legeak errealitate sozialera lotuta egotea ere.</p> <p>Legea betetzea eta betetzen ez dituenari zigortzea nahi dugu.</p> <p>Administrazioak gertukoagoak, eskuragarriagoak, herritarrekin erlazonatuagoak egin behar ditugu. Umilak izan behar dute, ez dakitena onartu behar dute eta eredu gisa balio izan behar digute.</p> <p>Erakundeek itxura zaindu behar dute, sentsibiltatea, elkarrizketa- eta entzute-guneak barne hartu behar dituzte, eta politiketan afektua gehitu behar dute.</p>

	<p>Ikuspuntu feminista administrazio osoan zeharkakoa izatea behar dugu. Administrazio publikoan lan egiten duen edonork formakuntza feminista izan behar du. Desio dugun administrazio horrek mugimendu feministarekin etengabe kontaktuan eta elkarrizketan egon behar du.</p> <p>Jabekuntza eskolak jarri behar dira herri eta eskualde guztietan.</p>
<p><i>Hezkuntza</i></p>	<p>Egungo hezkuntza-sistemari buruzko eztabaida publiko bat egin behar dugu, loteslea izango dena, aldatzeko asmoa duena.</p> <p>Irakasleek berdintasunean eta feminismoan derrigorrezko formakuntza izan beharko dute. EGA moduko bat izan beharko litzateke, hau da, irakasle gisa jarduteko derrigorrezko gaitasun eta ezagutzak izan beharko lirateke.</p> <p>Berdintasunera eta bizitzara bideratutako hezkuntza baterantz jo behar dugu.</p> <p>Horretarako, baliabideak behar ditugu, esate baterako, 0-7 urte bitarteko umeentzat hezkuntza-programa feministak, material didaktiko feminista, etab.</p> <p>Ikasgeletan sexualitatea eta harreman afektiboak lantzea nahi dugu.</p> <p>Programa feministak txertatzen dituzten eskolei saritzea proposatzen dugu, modu horretan ekintza sustatzen dugu, zigorraren bidea hartu gabe.</p> <p>Hezkuntza-proiektu alternatiboak martxan jartzeko aukera eduki nahi dugu, baina ez da beharrezkoa egungo hezkuntza-sistemaren barnean egotea. Baliabideak banatu behar zaizkie orain talde minorizatu izan daitezkeenei, baina dagoeneko hautabideak martxan jartzen ari direnei.</p>
<p><i>Komunikabideak</i></p>	<p>Komunikabideen behatoki feminista bat sortzeko beharra daukagu. Auditoretza feministak aldarrikatu behar ditugu: emakumeen hiperikusgarritasuna eta ikusezintasuna kontrolatu.</p> <p>Gainera, iragarki sexistak eta arrazistak zigortu eta debekatu behar ditugu. Legea aplikatzea eskatzen dugu.</p> <p>Komunikabideen zuzendaritza-kontseiluetan berdintasun-teknikariak eta feminista adituak egotea nahi dugu.</p> <p>Kalitatezko telebista eta irrati publiko baten alde egin behar dugu, hezkuntza-programak dituen, nahi ditugun berdintasunezko eraldaketak zailtzen ez dituen, baizik eta erraztu.</p> <p>Funtsezkoa iruditzen zaigu komunikabide orokor horiek aldaketak txertatu ditzaten, gizonezko eta emakumezkoen</p>

	<p>irudiak dibertsifikatu, estilo-liburu batekin lan egin...</p> <p>Kazetaritzako eta ikus-entzunezko komunikazioko ikasketetan hezkuntza-programa berehala aldatzea proposatzen dugu, belaunaldi berriek beste modu batean erabil ditzaten.</p> <p>Irrati feminista bat eta beste komunikabide feminista batzuk sortu nahi ditugu.</p> <p>Komunikabide alternatibo eta/edo feminista horiek babestu eta sustatu nahi ditugu alternatiboak izateari uzteko eta horiek erabiltzeko sareak sortzeko eta nahi dugun gizarte alternatiboaren eredu eta proiektua zabaltzeko.</p> <p>Gazteenekin alfabetizazio mediatikoen proiektuak jarri behar ditugu martxan, informazioarekiko eta jasotzen duten mezuarekiko begirada kritiko bat izan dezaten.</p>
<i>Soberan duguna</i>	<p>Sistema kapitalista, patriarkala eta bortitz hau.</p> <p>Erakundeen zorrotasuna, batzuetan aldatu ezin direla ematen du.</p> <p>Ezekotasuna, eredu tradizionaletako harreman afektiboak eta genero-rolak.</p>
<i>Garrantzitsua iruditzen zaiguna eta balio diguna</i>	<p>Zentzu guztietan berdintasun sistema bat sortzea.</p> <p>Hezteko askatasuna eta askatasunerako hezteak. Berdintasuna bermatzen duen hezkuntza-sistema bat izatea.</p> <p><i>Desatomizatzea.</i> Hizkera komunak, somenezko-gorputzeko metodologiak, metodologia ludikoak sortzea. Beste hizkera batzuetan lan egitea.</p>

Ikusi ahal dugun moduan, eta iraganeko eta orainaldiko uneei ekitean aurkeztutakoa kontuan hartuta, **maila pertsonalean/taldean** desioarekin eta sentimendu batzuekin, esaterako, poztasunarekin, konektatzeko beharra ikusten da, batzuetan aldaketen kontrakoa den ezberdintasunen errealitate bat aldatzeak sor dezakeen frustrazioaren edo minaren aurrean. Horrez gain, parte hartzen zuten elkarteetan erronkak identifikatu ziren. Elkarte horiek ez daude kontraesanetatik libre, eta batzuetan aniztasuna kudeatzeko eta funtzionatzeko beste aukera batzuk planteatzeko zailtasunak dituzte.

Erakundeen eta legeen esparruari dagokionez, hiru ideia multzo bereiz daitezke. Lehenik, beteko diren legeak edukitzeko eta beteko ez badira zigor argi bat ezartzeko beharra. Bigarrenik, hausnarketa orokorrako bat administrazioen izaerari dagokionez, herritarrekiko gertutasun gehiago izan ditzaten eta publikoa dena egiteko eta ulertzeko beste modu batzuk ezar ditzaten eskatuz. Eta azkenik, ikuspuntu eta agenda feministak, esparru diskurtsibotik baino haratago, administrazio publiko horiek zeharkatzeko eta feminismo horretaz jabetzeko beharra.

Hezkuntzarako bi proposamen multzo handi. Alde batetik, hezkuntza ereduaren inguruan sozialki eztabaidatzeko beharrari erreferentzia egiten diona, eta eztabaida orokor horren barruan beste hezkuntza eredu alternatibo batzuei ere lekua uzten diona. Eta beste aldetik, hezkuntza-maila eta -gune ezberdinetan feminismoa eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna barneratzeko beharrarekin zerikusia duen guztia. Bigarren multzo horretarako, irakasleen derrigorrezko formakuntzari nahiz ikasgelako lanari dagozkien proposamen ezberdinak identifikatu dira, hori burutzeko beharrezko baliabide guztiak izanik. Zentzu horretan, feminismoari presentzia handiago bat emateko ez ezik, derrigortasun horretan ahalegin gehiago egiteko beharra ere identifikatu da, diskurtsotik ekintzara pasatzea.

Komunikabideei dagokienez, proposamen ugari egin ziren. Alde batetik, hezkuntzaren esparruan bezala, Legea benetan betetzearekin, ikuspuntu feministatik komunikabide hegemonikoen kontrol sozialarekin eta zigor argiak ezartzearekin zerikusia duen guztia. Gainera, eta hegemonikoagoak edo orokorragoak diren komunikabide hauetan berdintasunaren ikuspuntua lantzeko, neurri ezberdinak proposatu dira, biztanleria gehienera iristeko duten gaitasuna kontuan hartuz, baina komunikabide alternatiboak, esaterako, feministak, edukitzeko eta indartzeko beharra ahaztu gabe. Horiek, bereziki, garrantzitsuak dira eraldaketarako mezu horiek helarazteko. Azkenik, eta aurreko multzoarekin lotura izanik, hezkuntza-esparruan zenbait lan-ardatz identifikatzen dira, eta horiek, batez ere, kazetaritzako eta ikus-entzunezko komunikazioko ikasketen prestakuntza-ibilbidea feminismo kodeetara eraldatu dute.

Soberan geratzen zaiguna identifikatzerako garaian, mantendu egiten den eta emakume eta gizonen arteko ezberdintasun harreman horiek erreproduzitzen dituen sistema baten erreferentzia agertu da, bai eta beharrezkoa den eraldaketa horren tresna izaten ez dakiten edo izan nahi ez duten administrazio zorrotz batzuen ere. Berriz ere, beste harreman sozial eta afektibo batzuk sortzeko beharra ikusi da, berdintasunean eta askatasunean oinarrituta daudenak. Eta zentzu horretan, **garrantzitsuak eta baliotsuak ziruditen elementu** horiek sortzekoa ere bai: askatasuna berriz ere, berdintasunean hezteko; guztiz ezberdina den sistema sozial, ekonomiko eta politiko batean pentsatzeko eta amesteko aukera; eta interkonexioak eta sareak sortzeko premia.

Jarraian ikusiko dugun bezala, modu sintetikoan aurkeztu ditugun ideia horiek **Euria ari du eta Prentsa-atzekoa** dinamiketan egin ziren proposamenetan egongo dira. Bigarren puntuan azaldu dugun moduan, dinamika horiek erabiltzen ditugu **desiratutako etorkizun** horren proiektioan aurrera egiten jarraitzeko eta **ekintza-bideen** edota etorkizun hori lortzeko eman ahalko genituzkeen pausoen inguruan lan egiteko epe motz, ertain edo luzeenetako begirada batekin.

Hala, bi dinamiketan parte-hartzaileek etorkizun horretarako proposamen zehatz bat identifikatu behar zuten, eta bi kasuetan **lortuta** izango balute bezala azaldu behar zuten. Azaltzeko modu horrek hori burutzeko eman ziren pausoen inguruan modu zehatzago batean hausnartzeko aukera eman zuen; izan ere, bi dinamikek azterketa hori egin nahi zuten laneko ikuspuntu ezberdinetatik. Jarraian, proposatutako ideiak aurkeztuko ditugu elkarren segidan. Azken lau proiektuak Prentsa-atzekoa unean aurkeztu ziren. Idazle-talde moduan, informazioa biribiltzen eta antolatzen saiatu gara eskuragarriagoa izan zedin, baina aurkeztutakoari ahalik eta modu leialenean erantzuten saiatuz. Talde bakoitzak bere proposamenak aurkezteko autonomia eta askatasuna izan zuen. Ez ziren kategoriatik itxiak egon, ezta aukeratutako etorkizun-proiektu bakoitzak erantzun behar zituen informazio-kutxarik ere. Horregatik, proposamen bakoitzaren zehaztasun maila ezberdina da, baita eman zen informazio mota ere, hemen jasotzen saiatu garena, hain zuzen. Segidan dauden tauletan ikusiko dugun moduan, uste dugu hori ez zela arazo bat izan burututako lanak ideia eta proiektu iradokitzaile eta interesgarriak eman ahal izateko.

<i>Euria ari du eta Prentsa-Atzekoa... ekintza-bideak definituz...</i>	
Hezkuntza aldatzen dugu...	<p><u>Zer lortu da?</u></p> <p><i>Eskoletan berdintasunaren ikasgaia beharrezkoa da.</i></p> <p><u>Nola lortu da?</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Existitzen dela esaten den genero-zeharkakotasuna betetzea behartuta, baina gaur egun ez da betetzen. • Beste erreferente eta lege batzuk edukita. • Egoera diagnostikatuta eta egokiak diren neurriak hartuta. • Irakasleentzat informazio-kit bat sortuta. • Jasotako formakuntza hori eta abian jarritako gainerako programak ebaluatuta eta etengabeko jarraipen bat eginda.
	<p><u>Zer lortu da?</u></p> <p><i>2017-2018 ikasturtean antzerkiko eta dantzako derrigorrezko irakasgai bat egotea hezkuntza zentro guztietan.</i></p> <p><u>Nola lortu da?</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Europar mailako beste eredu batzuk erreferentziazat hartuta, antzerkia, kultura eta artea edozein hezkuntza-proposamenetan gai serio eta garrantzitsu baten moduan hartzen dutenak. • Programaketan adin guztientzat gai hori txertatuta. • Material didaktikoa, irakasleentzako formakuntza, babesa, baliabideak, etab., sortuta. • Euskal Herrian hezkuntza-eredu propio bat sortzeko

	lan eginda, emozioa eta beste berdintasun- eta zaintza-harreman batzuk barne hartzen dituena.
<p>Legeak eta administrazioa aldatzen ditugu...</p>	<p><u>Zer lortu da?</u></p> <p><i>Euskal Herrian, 2018. urtean, legeak zigortu egingo du edozein sexu-diskriminazio (benetan betetzen den lege bat da).</i></p> <p><u>Nola lortu da?</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Estrasburgoko Auzitegiak ziurtatutako Lege bat izanda, internazionalki eskatu dena. Honakoa jasotzen du, beste neurri batzuen artean: lege hori errespetatu eta betetzen ez duten pertsonen gaitasungabetze politikoa bakoitzaren kargua gauzatzean. • Komunikabideetan emakumeen presentzia eta sexu-diskriminazioa arautzen duten Lege bat izanda. • Presio soziala eginda derrigorrez bete behar diren legeak izateko. <hr/> <p><u>Zer lortu da?</u></p> <p><i>2017an alarde bakarra dago Jaizkibel konpainiarekin askatasun osoz desfilatzen duena</i></p> <p><u>Nola lortu da?</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Berdintasun lege bat izanda, eta errespetatzen ez bada, ondorio eta kostu politiko batzuk izanda. • Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren ideian lan eginda, Hondarribia edo Irun bezalako herrien irudirako balio izateko, internazionalki okerrera egin baitu. • Lobbie feminista indartuta; beste batzuekin elkartzuz, horrenbeste urte borrokatzen ibili ostean, azkenean, festetan aldaketa egitea lortu zutelako.
<p>Tradizioak eta praktika kulturalak eraldatzen ditugu. Erreferente berriak sortzen ditugu...</p>	<p><u>Zer lortu da?</u></p> <p><i>2017an Dantza-Hariak proiektua jarriko da martxan (dantzaren bitartez genero-rolak hautsi nahi dituen proiektua).</i></p> <p><u>Nola lortu da?</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Jaialdi bat antolatuta, bertan dantza askeak garrantzia berezia hartuta, emakumeak eta gizonak nahi bezala dantzatzeko eta rol tradizionalak trukatzeko aukera edukita. • Jaialdi hori ibiltaria bihurtuta eta herri ezberdinetara eramanda, haien identitateekin erlazionatzen saiatuko dena. • Ekitaldia egiten den leku horrekin konexioa bilatuta beti, eta balio batzuk sustatuta: kultura, aniztasuna, berdintasuna, herrien aberastasuna...

	<ul style="list-style-type: none"> • Ekitaldi horientzat ekintzez osatutako programa bat eginda, esaterako, gaien inguruan elkarriketak, eta batez ere, dantzak, ikastaroak, taldekako ekintzak, etab.
	<p><u>Zer lortu da?</u></p> <p><i>2017ko irailaren 20an, Iruñean, emakume eta gizon pilotarien (mistoa) partidu bat jokatuko da.</i></p> <p><u>Nola lortu da?</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Emakume pilotarien harrobi bat sortuta. • Emakumezko entrenatzaileak edukitzea, hala, estereotipoak eta zalantzak desagertuko dira. • Emakume gazteen lana ikusarazita eta indartuta. • Gizon pilotariekin lan zehatza eginda. • Pertsona- eta talde-sare bat izanda, beharrezko baliabideak babestuta, presioa eginda eta lortuta. • Ekitaldiaren egunean babesteko autobus feministak antolatzea eta komunikabideek albiste horren berri ematea lortuta.
	<p><u>Zer lortu da?</u></p> <p><i>Irunen eta/edo Hondarribian kantineroak desfilatuko duten lehen alardea egitea.</i></p> <p><u>Nola lortu da?</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Parte hartu nahi zuten gizonak identifikatu zituen batzorde bat sortuta. Batzorde horrek arroparen inguruko erabakiak hartu zituen, baita nola desfilatuta, etab. • Gizonezko horiekin aurretiko lana eginda, kantinero moduan ateratzeko haien erabakia indartzeko, rolak haustea lantzeko... • Alarde mistoko parte hartzaile guztien babesa edukita. • Babesa eman ahal luketen herrietako taldeekin, festetako batzordeekin hitz eginda. • Proiektu hau Europa mailan erreferente bihurtzea lortuta, modu horretan, herri horien irudia hobetzeko lagun zezakeen. • Pixkanaka desfilearen ikuspuntu militarrean ere aldaketak eginda, herritar guztiek parte hartu nahi duten eta horregatik pozik sentitzen diren desfile batean bihurtuta.
	<p><u>Zer lortu da?</u></p> <p><i>2017an umore sexistaren aurrean zero tolerantzia lortuko da.</i></p> <p><u>Nola lortu da?</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Umore zaharrenaren eta tradizionalenaren gakoak aldatzeko gogoak dituzten eta motibatuak dauden

	<p>pertsonen artean balioko duen proiektu bat martxan jarrita.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Isiltzen bagara sexismoa baimendu eta erreproduzitzen ari garela onartuta. • Prozesu bat definituta: lehenengo formakuntza bat jasoko da eta ondoren, edozein umore edo txiste sexista eta iraingarriak salatzeke konpromisoa hartuko da. • Hau guztia WhatsAppeko taldeetan, landuta, salatzeke balioko duten emotikono zehatz batzuk sortuz. • Aplikazio berriak garatzeko lan zehatzak eginda. • Errespetutik umorea ulertzeko eta barre eragiteko beste modu batzuk ikusarazita eta balioztatuta.
<p>Sareak sortzen jarraitzen dugu...</p>	<p><u>Zer lortu da?</u></p> <p><i>Web orri bat sortuko da sareetan eta emakume eta talde feministen lanak sakontzen jarraitzeko.</i></p> <p><u>Nola lortu da?</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Tresna gisa web orri bat sortuta, eta horrez gain, herri guztietan emakume eta feministen Topaketarako gune fisikoak ezarrita. • Jabekuntza eskolak eta topaketa hauetarako emakumeen etxeak aprobetxatuta. • Elkartruke-saio ibiltariak antolatuta herri ezberdinetatik. • Direktorio bat sortuta. Bertan jasoko dira berdintasunean, feminismoan, tradizio eta praktika kulturaletan, gauza publikoetan, eta abarretan, emakumeen partaidetza sustatzen, lan egiten duten elkarte eta sare guztiak.
<p>Ospatzen dugu...</p>	<p><u>Zer lortu da?</u></p> <p><i>Jaizkibel konpainiak bere 20. urteurrena ospatuko du.</i></p> <p><u>Nola lortu da?</u></p> <ul style="list-style-type: none"> • Plazeretik festa handi bat antolatuta, musikarekin, dantzarekin, beste adierazpen artistiko batzuekin. • Programa itzel bat edukita, herritarren babesa izango duena. • Festen batzordearekin lan eginda. • Finantzaketa eta babes publikoa edukita; izan ere, ospakizun hau herri baten memoria eraikitzeke beharraren eta etorkizunera begira beste balio batzuk transmititzeko aukera handi baten moduan hartu baitugu.
<p>LAU PROIEKTU IZAR...</p>	<p>PLAZERA IRRATIA.</p> <p><u>Zer lortu da?</u></p> <p>Lehen irrati feminista eta euskalduna. Euskal Herria guztian entzuten da. Plataforma guztietara iristen da: tabletak,</p>

telefonoak... Ahots-aniztasuna, batez ere, emakumeena, jaso nahi duen irrati bat da. Programaketak ahotsa, musika, emakumeen historia, etab., lehenesten ditu.

Nola lortu da?

- ✓ Proiektu honen atzean pertsona anitzen talde bat izanda. Praktika eta tradizio kulturalak ikertzen dituzten antropologoak daude, baita emakumeen esperientziak berreskuratzen dituzten historialariak ere.
- ✓ Biarritzeko Topeketatik parte hartu zuen talde batek emakumeen ahotsak berreskuratzeko eta ikusarazteko beharra ikusi zuen. Ikertu egin zen, edukiak grabatu ziren, finantzaketarako ekintza zuzenak egin ziren... Modu horretan, sareak eta itunak indartu egin ziren.
- ✓ Unibertsitatearen babesa, praktika-programa bat eta formakuntza eduki ziren.
- ✓ Eskuragarri egongo zen programaketa bat egin zen, gai horiek guztiak entzuleengana iristeko.
- ✓ Euskarazko programaketa baten alde egin zen apustu, nahiz eta online bidezko plataforman programa batzuk gaztelaniaz dauden.
- ✓ Irrati libre bat sortu zen, programaketa beste herri irrati eta irrati libre batzuekin batera lantzen duena. Publizitatea ez onartzea erabaki zen.
- ✓ Eskolekin lana egin zen, irratia erabiltzea sustatzeko.
- ✓ Irratia kalera eraman zen, hilabete bakoitzeko larunbat goiz batean, herri ezberdinetan bere programaketaren zati bat grabatzeko.

PLAZER IBILTARIA.

Zer lortu da?

Proiektu honetan karabana bat Euskal Herriko herri guztietatik doa, plazeretik lan eginez eta beste mugimendu eta dantza batzuk sustatuz. Elementu asko dituen proiektu bat da, integrala da. Proiektu honen ustetan, gerturatzeko eta taldea osatzeko modu bat da musika, gorputza... Plazeretik elkartzea indartu nahi dute.

Nola lortu da?

- ✓ Biarritzen koreografia bat eta abesti baten letra asmatu ziren. Bideo bat grabatu zen eta talde asko gehitu ziren bertara.
- ✓ Biarritzeko Topaketaren ostean, ezagutza jalki zuten, abiapuntuak zehazten hasi ziren eta dekalogo eta manifestu bat idatzi zuten. Beste talde batzuekin elkartu ziren, irrati libreekin, jabekuntza eskolekin, eta kulturako elkarteekin, pertsonekin eta taldeekin. Borondatez, Euskal Herriko herrietako festetara joaten

hasi ziren.

- ✓ Jarraitu beharreko ibilbide-orri moduko bat definitu zen, honako honetan oinarritzen zen:
 - Herrietara egun batzuk lehenago iristea, testuingurua eta taldeak ezagutzea...
 - Leku bakoitzean zerk ematen dion identitatea eta plazera identifikatzen da, eta hortik proposamena egiten da.
 - Koreografoak pausoak ikertzen ditu, testuinguru bakoitzean existitzen diren mugimenduak katalizatzen ditu. Amaierako koreografia dagoenarekin sortzen da. Horren bitartez, kultura eta dantza mota ezberdinak ikusarazi nahi dira.
 - Furgoneta heltzen denean, diagnostikatu dutenaren arabera, zerk eman dien plazer gehien (gastronomia, kirola...), eta tokiko sarea eratu ostean, koreografian bereizgarria dena jasotzen da, flashmoba egin, azkenik, grabatu egiten da
 - Bideo horiek proiektuaren identitatearen zeinu dira. Grabatu ostean, pertsona batzuk herrian geratzen dira esperientzia jasotzeko. Ondoren, web orrian zintzilikatzen da, beste herriek bertan zer gertatu den ikusteko.
 - Ahalik eta parte hartze handiena eduki nahi da, adibidez, euren lan orduen arabera migratu duten emakumeen presentzia bermatuz.
- ✓ Sareak eta aplikazioak asko erabili dira, karabanaren ibilbidea online jarraitu ahal izan da. Baliabideen oinarri bat ari da sortzen, plazer praktika batzuen oinarri bat. Haien web orrian mapa bat dute, eta bertan herrietako kolektiboak, taldeak, ikus daitezke. Sareak egiten ari dira. Hodei morea.com deitzen diote, eta karabanak uzten duen arrastoa sinbolizatzen du. Baliabide hori garrantzitsua da lehenagotik konektatzeko eta, ondoren, proiektuaren prozesua jarraitzeko.
- ✓ Esperientzia eta sortzen ari diren tresnak sistematizatzen ari dira. Plazeretik lan egiteko modu hau taldeetan garatzeko metodologia bat ere bada. Ezagutza hori guztia karabana pasatzen den herri guztietan geratzea ere nahi da.

BERDINTASUNA PLAZARA, WEB ORRIA ETA PROIEKTUA

Zer lortu da?

Biarritzen konturatu ziren herri ezberdinetan praktika eta tradizioetan emakumeen partaidetzari zegokienez arazo antzekoak zeudela. Isolatuta zeudela konturatu ziren, ez zekiten zer ari zen gertatzen. Arazoa Euskal Herri guztira ari zen hedatzen, eta beraz, komunikatzeko sare eta plataforma

bat sortzeko beharra ikusi zen. Horrela sortu zen web orria.

Nola lortu da?

- ✓ Biarritzera joan ziren pertsonak, Topaketaren ostean lana banatu zuten. Bakoitzak bere herrian egungo egoeraren eta arazoaren laburpen bat egin behar zuten. Sarea indartuz joan da eta proiektuarekiko atxikimenduak gehituz doaz.
- ✓ Gaur egun, esperientzien eta kontakizunen datu-base handi bat dute, eta hori Euskal Herriko herri guztietako tradizio eta praktika kulturalak eraldatzen joaten erreferentzia bat da. Alardeak ere eraldatzen ari dira, emakumeen eta gizonezko kantineroen presentziarekin, militarki horrenbesteko lotura ez duten erritmoekin... Aniztasun handiagoa dago.
- ✓ Horretarako, hiru mailatan aritu dira lanean:

1. Protagonistenak, tradizioaren eta praktikaren parte direnak, elkarbanatzeko, ezagutzeko, etab. Maila honetan, loturak eta sare-lanak egin dituzte aurreko bi proiektuekin eta beste alarde batzuekin, esate baterako, Antzuolakoarekin. Horrek aktiboki parte hartu zuen Iruneko eta Hondarribiko kideak babestuz.

2. Ezagutza orokor mailan, geroago Ondare Ukiezin Batzorde bat eratu zen, eta horren aktak ere aurkeztuko ditugu. Batzordea ere elementu garrantzitsu bat izan zen, ikaskuntzako beste teknika kolaboratibo eta sortzaile batzuekin egin zelako, esparru akademikoan hain ohikoak ez direnekin. Konferentziak, hitzaldiak, mahai-inguruak ematea baino gehiago izan zen. Gainera, Biarritzeko talde dinamizatzailearen babesa izan genuen teknika kolaboratibo eta ikaskuntzako teknika horietan aurrera egiteko.

3. Maila legegilea/juridikoak, intzidentziazkoa, esparru horretan lan egitea ahalbidetu zuen, baita erakundeak behartuta egotea ere lege horiek eraginkorrak egiteko. Legearen interpretazio eta aplikazio berriarekin, legea betetzen ez duten eta agintzen duten herrietako festetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean partaidetza errazten ez duten alkateak desgaituak izan daitezke.

EMAKUME ARTISTEN SARE-KOOPERATIBA

Zer lortu da?

Biarritzen elkartu ziren, eta konturatu ziren berdina egiten zutela, egoeraren arazoak eta diagnostikoa partekatzen zituztela. Beraz, sare hau sortzeko beharra ikusi zuten. Lotura moduan funtzionatzen du administrazioaren eta programaketa kulturalak definitzen dituztenen eta artearen eta kulturaren forma ezberdinetatik, horietariko askok feminismotik, euren lana saldu nahi duten emakumeen artean.

	<p><u>Nola lortu da?</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Sare hori egiteko online tresna batekin hasi ziren. ✓ Instrumentuak zituzten pertsoneri deialdi orokor bat egin zieten, instrumentuak etxetik ekartzeko edo ahotsekin eta gorputzarekin etortzeko. Makro kontzertu bat sortu zen, musika-ezagutzak zituztenekin eta ez zituztenekin, baina guztiak gizarte paretsuago baten eta artearen eta kulturaren garrantziaren alde zeuden. Horrela lortu genuen sarea aurkeztea eta martxan jartzea. ✓ Gaur egun, urte guztian zehar programaketa guztietan modu orekatu batean emakumeek eginiko gauza artistikoak eta kulturalak ikusarazten lortzen ari dira. Administrazioaren eta arte-jendearen arteko zubia dira. ✓ Lan asko egin dute lan artistikoaren balioari eta prezioari dagokionez. Administrazioari kulturatik egiten den ekarpen guztiaren berri eman diote, zenbat balio duen ulertzen lagundu diote. Diruari buruz ere formakuntzak egin dituzte, emakumeekin "lanari balioa eta prezioa" jartzeari buruzkoak.
--	---

Taula horren irakurmenetik eta proposatutako ideien dibertsitate eta aberastasunetik abiatuta, zenbait **elementu komun** ezar ditzakegu, hain zuzen ere, txosten honetan zehar aurkeztu ditugun elementuekin lotuta daudenak. *Euria ari du* atalean proposatutako **etorkizuneko egoeretan** arreta ipiniz, eta informazio hori antolatzeke erabili ditugun kategoriei jarraikiz, dagoeneko lehen aipatu ditugun bi proposamen egin ziren hezkuntza-arlorako: eraiki nahi den hezkuntza-eredu horretan nagusi izatea berdintasuna edo feminismoa eta kultura eta artea. Hori lortzeko antzeko pausoak proposatu ziren: beste erreferente eta eredu batzuk ezagutzea, aplikatzeko legeak izatea, hezkuntza-programak eratzea, prestakuntza ematea, baliabideak izatea eta hori guztia balioztatzea.

Administrazioaren eta legeen eraldaketari lotuta, elementu komunak zituzten bi proposamen egin ziren. Biek bat egiten zuten nahitaez betebeharreko legeak egon behar direla. Lege horiek argi eta garbi ezarri beharko lituzkete legea ez betetzeagatik jasan beharreko zehapenak. Horiek haustek pisu politiko handia izango luke. Horretarako, funtsezkotzat jo zituzten presio soziala eta feminista.


Sortutako beste bloke batek **praktikak eta tradizioak eraldatzea eta erreferente berriak eragitea** aipatzen ditu. Rolak hausteko lan egitea proposatu zen, honakoen bitartez: dantza, emakumezkoen pilota, gizonezko kantineroak alardeetan eta umore ez sexista. Lau kasuetan gaiaren inguruko sentsibilizazioaren eta kontzientziazioaren beharra ikusi zen argi eta garbi. Horrez gain, prestakuntza-prozesuak abiarazteko, praktikaren eraldaketan laguntza emateko eta prozesu horiek blindatzeko eta indartzeko laguntza-sare handi eta indartsuak sortzeko beharra ere ohartu zen.

Azkenik, bi elementu nagusitu ziren topaketan zehar: **Trukerako eremuak eta sareak sortzea**, kasu honetan tresna birtual baten bidez; eta **gozamina eta poztasuna**

gizarte-eraldaketako prozesu horietan txertatzea, adibidez, alardearen kasuan azken 20 urteetan lortutako guztia ospatzeko.

Prensa-atzekoa dinamikan aurkeztutako azkeneko lau proiektuek argazki hori osatzen dutela uste dugu. Proiektu horiek xehetasun handiagoarekin azaltzen direnez, alde batetik, taldeen irudimen- eta sormen-gaitasuna ikusteko aukera ematen digute. Talde horiek oso proiektu interesgarriak eta iradokitzaileak aurkeztu zituzten, proposamenak prestatzeko denbora urria izanda. Beste aldetik, etorkizunerako proiektu horiei ematen zaien **ikuspegi osoa** ikusteko aukera ematen digute, maila ezberdinetako lanaren bidez eta hainbat aktore inplikatur. Baita **lauren arteko beharrezko lotura** ere. Bistakoa da prentsaurrekoa antzeztu bitartean lau proiektuak eratzen joan zirela. Azkenik, **proposatutako edukiei** dagokienez, ikus dezakegu **Herri Zahar, Andre Berri** proiektuaren ideia nagusiei erantzuten dietela: lana atseginez egitea, praktika eta tradizio berriak sortzea, administrazio-, hezkuntza- eta komunikabide-arloetako berriazko lana, dibertsitatea (balio gisa) eta sareak eta itunak (prozesu horiek gauzatzeko funtsezko printzipio gisa). Hurrengo puntuan gai horiei helduko diegu berriz ere. Baina horren aurretik taldeek eratutako aurkezpenen irudi batzuk aurkeztuko ditugu.

PAPELOGRAFO BATZUEN IRUDIAK



Unika pertsoaren:

- * Beharrek plazaratzen ari giza
- * gutxiak gure barne baliak ematen ari giza
- * pafuzioak gutxitzen ari dira (paukarka, 101K4!)

Parte hartze aktiboa

Gure aldean, kolektiboa:

- * **EMU** Europa eta estatua
- * Bizipenak konpartitu
- * Parte hartze aktiboa bultzatu

Instaluzioak:

- * Bizi-bizilagilea urratzen lagundu
- * Laguntza ematu
- * Farkelaketarekin lotuta irabazten da

legeak

- * Berezitasuna lotzeko araudiak
- * Diskriminazio eginkizunak zigortu
- * Euzkumen proiektuak auzora ateratzeko bideak zehaztu.

Beste eremu batzuk:

- * Kultura-bidetan euzkumenaren eginkizun baliagarri ematen
- * Familiatan euzkumen ukiak gehiago erabiltzen dira
- * Kultura-bidetan euzkumen ukiak gehiago erabiltzen dira

SORGINA

PODER CONDOMINIO
ATROZITATEA
EL MURDO

RED

El dolor en el cuerpo
El dolor en el alma
El dolor en el corazón

RESISTENCIA

El movimiento SNA

Los sentimientos
Peligro, agresividad
No se son, over head, bantay
en nuestro cuerpo por
5X (Mujeres)

10 CUENTAS
Hablar y escribir
por ti

LIBERTAD DE DECISION

juicio de valor
Creencia / valores

Debate
Danza
Ho terapia
Testes
Los mas

El cuerpo
¿cómo se ve?
¿cómo se siente?

MIEDO CONTROL PASIVIDAD

Eliminar Transpiración

ESTEREA

- ropa
- pelo
- mechillas frontales
- espacio público
- ropa que mujeres imponen en otros

CUERPO

anular la voz
desconexión
dejarlo
operario
anular la masculinidad

Visibilidad
ocupación del espacio
libertad
Danza
movimiento
juntos
juntos
juntos


TABÚ

menstruación
violencia
MIEDO
Menopausia

MOVIMIENTO

- psicominidada
- vestuario
- alimentación
- Permitir vs. Controlar
- Espacio: ocupación
- Ejeval dentate / Repetición
- Insatisfechos con el cuerpo

El cuerpo
libre
controlado



3.2. Ibiliz, partekatuz, gozatuz... Edukien eta metodologiaren inguruko ikaskuntza batzuk.

Biarritzera egin genuen bidaiaren kontaketa amaitzeko, bertan landutako edukiei zein metodologiari buruz ateratako zenbait ondorio edo ikaskuntza jasoko ditugu.

Edukiei dagokienez, une eta dinamika bakoitzean landutakoa azaltzean, zenbait elementu komun identifikatu ditugu, edo jadanik **Herri Zahar, Andre Berri** proiektuaren ardatz nagusizat jo genituenak. Esan dezakegu, gutxienez, **honakoak direla nortasun partekatuko elementuak:**

- Emakumeek tradizio eta praktika kulturaletan **atseginez** parte-hartzeari heltzeko beharra. Premiazkoa da norbere buruari galdetzea zertarako eta nola parte hartzen den, bai eta segurtasun-eremuak eta banakako eta taldeko ahalduntze-prozesuak ere, poztasun edo atsegin horri garrantzia emango

diotenak. Gu gozatzea gaur, bihar beste batzuek gozatu ahal izateko.

- Horrek gorpuak lotzeko aukera ere ematen digu, mugimenduaren bidez, bai eta arauak, ezarritako rolak eta hainbatetan tradizioa zeharkatu eta berriz sortzen duen genero-binarismoa hausteko ere. Ez da nahikoa emakumeek parte hartzearekin, onartu behar dugu parte-hartze horrek praktikak eta tradizioak eraldatuko dituela, eta, ondorioz, gozagarriagoak izango dira emakumeentzat eta gizon ez arau-emaileentzat.
- Argi geratu da nahitaez bete beharreko legediak eduki beharra dagoela eta **administrazio publikoei eskatzen zaie** emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatu eta sutatzeko. Premiazkoa da politikoki zuzenak diren diskurtsoak alde batera uztea eta administrazioa zer egiten ari den agerian utzi behar da, kritikoak izanda. Esperientzia positiboak berreskuratu behar dira, baina, batez ere, arauak betetzen ez dituenari zehatu behar zaio. Emakumeen parte-hartzea eskubide bat izan behar da, eta ez agintzen edo kudeatzen duenaren nahiaren araberrako kontu bat.
- **Hezkuntza eta ezagutzaren arloa** nagusi da; izan ere, desberdintasunean hezten dugu oraindik, eta horrela oso zaila da nahi ditugun aldaketa sakonak egitea. Arlo horretan proposamen asko egiten dira: prestakuntza, ekimen zehatzak garatzea eta hori guztia gauzatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak edukitzea. Onartzen da gaur egun egiten ari diren ahaleginak ez direla nahikoak, bistakoa denez, eta pertsonen berdintasunean, dibertsitatean eta askatasunean oinarritako nahi dugun hezkuntza-ereduari buruz eztabaidatu eta hausnartu beharra dagoela. Maila ezberdinetan unibertsitatearen jarduketara ere nagusitzat agertzen da.
- **Komunikabideek** funtsezko rola dute desberdintasunaren transmisioan, eta horren inguruan egin beharreko lanak hainbat ardatz ditu: kontrol eta auditoretza feminista, ikuspegi feminista sartzea edukietan eta programazioan, zehapenak ezartzea betetzen ez dutenentzat eta komunikazio-eremu alternatiboak sortzeko ahaleginari jarraipena ematea, logika hegemonikoei eta merkatukoei jarraitzen ez dituztenak eta ikuspegi feminista aintzat hartuta egiten direnak.
- Bestalde, **erreferenteak sortzeari** dagokionez, ezinbestekoa da dagoeneko erreferente garena ulertzea eta esperientzia eraldatzaileen abiaraztea aztertzen jarraitzea ere. Esparru horretan lan egiten ari diren talde eta kolektiboentzako funtsezkotzat agertzen da. Horiek zama handia daramate askotan; izan ere, aldaketa lortzea, lortutakoa aitortzea, frustraziorik gabe ez egitekoa onartzea eta bidean emandako pauso bakoitza poztasunez ospatzea zaila da.
- Azkenik, hori guztia kolektiboki egiteko beharra, loturak eta harremanak ezartzea, emakumeen, feministen eta bidezkoa ez den desberdintasun-egoera hori aldatu nahi duten pertsonen artean. Bat egiten gaituena topatzea premiazkoa da, urruntzen gaituena bilatzea, berriz, ez hainbeste. Horrez gain, alde batetik, ulertu behar dugu proposamen komun bat partekatzen dugula, emakume eta gizonentzako bizigarriagoa den gizarte bat sortzea, herri

bakoitzeko errealitate eta testuinguruan lurreratzen dena; bai eta elkarrekin indartsuagoak garela ere, **dibertsitatean bat egiteko** ideia hori nabarmenduz beti.

Biarritzeko topaketan landutakoari izaera eman dieten elementuak horiek izanda, uste dugu nahi dugun etorkizun hori lortzeko honako bide hauei jarraitu behar zaiela:

- o ***Ezagutzea, oroitzapena berreskuratzea, historia berridaztea.***
- o ***Ikusaraztea eta gauzatzea, erakustea eta eremuak okupatzea.***
- o ***Bat egitea eta sareak eta itunak sortzea.***

Uste dugu proposatutako ekimen edo planteatutako etorkizuneko gune askok eraldaketarako garrantzirantz eta potentzialtasunerantz pausoak emateko aukera ematen zigutela, memoria indibidualaren eta taldekoaren ezagutza eta birsorketa gehitzea ; berdintasunetik eta gozamenetik tradizio eta praktika kulturalak ulertzeko eta bizitzeko beste forma batzuk praktikan jartzea; eta itunak eta ahizpatasuna indartzea.

Zentzu hirukoitz horretan, eta modu integral batean ezartzeko ahaleginak eginez, ekimenak martxan jartzea guztiok desio dugun etorkizun horretara gerturatzeko balio digula uste dugu.

Beste aldetik, garrantzitsua iruditu zitzaigun gure bidaia-kronikaren atal honetan **proposamen metodologikotik hartu genituen** zenbait ikaskuntza sartzea. Hasieratik esan dugun moduan, bidaiatzeko beste modu batzuk pentsatzea eta praktikan jartzea beharrezkoa zen, hau da, ezagutzaren sormena eta eraikitze kolektiboa ulertzeko beste modu batzuk, sormena sustatuz eta hizkuntza eta diziplinak hibridatuz. Hala, lehen ikaskuntza handi bat hori izan zitekeen, **lan egiteko beste modu horiek azaldu duten potentzialtasuna eta laguntzeko zeregina hartzen dugun guztioi suposatu digun aberasgarritasuna.**

Bigarrenik, **programa zerbait organiko moduan ulertzeko ideia** berreskuratu nahiko genuke, zentzu bikoitzean bada ere. **Begirada integralarengatik**, une guztiei eman nahi izan zitzairen talde begirada. Hemen funtsezkoak izan dira trantsizio-dinamikak, jolasak, gorputza eta burua konektatzeko uneak... Topaketaren zentzu orokorretik deskonektatutzat hartuta ez zeuden gune eta denborak, modu esplizituan egindako galderei erantzuten saiatzen ez ziren arren. Superkonferentzia da horietako guneetako bat, eta aurreko egunean landutakoa gurekin generamazienarekin konektatzeko aukera eman zuen; gorputzarekin konektatzen zizkiguten beroketa jolasak; Sorginkuntza uneak, sormena sustatzeko ekarpenekin; edo ideiak marrazkietan biltzea... Hori guztia zati garrantzitsu bat izan da, Topaketa egiten eta konektatzen lagundu diguna.

Antolatzeko gaitasunaren bigarren zentzua **programa bizi** bati zegokiola ulertzea zen, derrigorrez parte-hartzaileen taldean burututako erritmoaren, dinamiken eta interakzioen arabera izan behar zuena. Horrek eragin du talde dinamizatzaileak proposamena etengabe aztertzea, denborak eta eskaerak orekatuz, eta batez ere, bertan gertatuko zenari arreta handia jarriz eta zainduz.

Hori ulertzeak ere hirugarren ikaskuntza batera eraman gaitu, hau da, "gure kontroletik" beti alde egingo diguten elementu batzuk daudela onartzea, eta gure esku dagoena


baldintza hoberenak sortzea dela, sormen hori gerta dadin. Ondoren, beti beharko da magia apur bat, kolektibotasun hori sortzeko.

Laugarren ideia moduan, identifikatu genituen **hainbat erronka eta zailtasun**, edo lehen azaldu bezala, bidaia honetako saihebidetako edo bidegurutzetako. Lehenik eta behin, denborak dimentsionatzeko zailtasun hori, sobratu egingo dela pentsatzen dugu, eta azkenean, ez dugu nahiko denbora. Jasotako eskaera konkretu bat izan zen gune gehiago izatea bertako esperientziak xehetasun gehiagoz ezagutzeko.

Beste alde batetik, **taldeen lana gehiago zuzentzearen edo irekiago uztearen arteko tentsioa** egongo litzateke, egin beharreko lana bakarrik testuinguratuta. Kasu honetan, momentu batzuetan parte-hartzaileek heldu beharreko gaien zehaztasun handiagoa eskatu zuten, esate baterako, gida-galderen forman. Horiek egin ziren, baina esperientziak erakutsi digu taldeetako lanek ezberdin erantzun zietela horiei, eta helarazten saiatu zen konfiantza eta sortzeko askatasun giroek talde bakoitzak definiturik zituen ekarpenak beste zentzu batekoak egin zituen. Hori arazo bat izan beharrean beste ikaskuntza metodologiko baten moduan ulertzen dugu.

Horrez gain, eta identifikatutako zailtasunen atal horrekin jarraituz, **aniztasunaren kudeaketa ere erronka eta ikaskuntza bat izan zen**, konkretuki hizkuntzari eta komunikazio-sistemari dagokienez. Topaketan euskara gehien hitz egingo zen hizkuntza izango zela aurreikusitako genuen, batez ere itzulpen osoko guneetan, parte-hartzaileen artean "xuxurlatze" itzulpen lanetan konpromiso kolektibo bat egongo zenetan. Aldibereko itzulpena deuseztatu egin zen, talde txikietan lan egiteak kontuan hartzen ziren beste aukera posible batzuk zailtzen zituela kontziente ginen. Topaketak iraun bitartean eta parte-hartzaile guztien laguntza izanik, uste dugu guztiek euren hizkuntzan adierazi ahal izatea eta euskara nabariena izatea lortu genuela, nahiz eta hobetzeko alderdi asko dauden beti.

Azkenik, bosgarren lekuan eta ikaskuntza-atal honi amaiera emateko, azpimarratu beharra dago **gune ludikoen**, ibilaldien, afarien eta abarren garrantzia, taldean lotura hori sortu ahal izateko. Eta nola ez, **umorea**, parte-hartzaileen eskuzabaltasunari esker, Topaketa guztian zehar izan genuena.



4. Maletak deseginez eta argazkiak errelebatuz... Bidean aurrera egiten jarraitzen dugu

Biarritzeko bidaia **Herri Zahar, Andre Berri** proiektuaren puntu garrantzitsu bat izan da, baina ez dugu azkena izaterik nahi. Proiektuak bizirik jarraitzen du, eta espero dugu dokumentu honek balio izateko gure Topaketako ikaskuntza guztiak edota etorkizunerako pentsatu genituen proposamen guztiak partekatzeko.

Dokumentu honen eranskin gisa, bidaia honi buruz parte-hartzaileek egin duten **balorazioa** ipini dugu. **Azpimarratzeko elementu** moduan dinamikak eta metodologia ditugu, jolasa, gozamina eta beste ikuspuntu eta begirada batetik gaia lantzeko aukera eman dutenak. Beste alde batetik, gerturatutako pertsonen aniztasuna eta sortutako harremanak ere. Topaketan ezagutzeko eta elkarretaratze pertsonalagoetarako eta ludikoetarako guneak emateko aukera positiboki baloratzen da. **Hobetu beharreko elementuak** izango lirateke elikagaia bezalako gai materialak, eta taldeak gehitzen joateko, gizonezko gehiago parte hartzera gonbidatzeko eta esperientziak eta bertako taldeak ezagutzeko tarte gehiago izatea. **Biarritz eta gero nahiko zenari** dagokionez, hiru proposamen: Topaketaren egunetan landutakoa sozializatzeko tresna gisa dokumentu hau izatea; kontaktuan jarraitzea eta sareak egiten jarraitzea; eta hiru egunetan identifikatutako ekimen batzuk martxan jartzea.

Zentzu horretan, **Donostia 2016tik**, eta Biarritzen egon ginen eta azkenean joan ezin izan zuten baina interesa adierazi zuten beste pertsona guztien aldetik parte hartzeko gonbidapenarekin, ideia hauetariko batzuk garatzeko baliabideak eskura jarri nahi ditugu. Konkrétuki Antzuolan ekintza performatibo bat egitea gustatuko litzaiguke, uztailaren 17an (dagoeneko horretan ari gara lanean); eta Euskal Herrian praktika eta

tokiko tradizioetan emakumeen partaidetzari dagokionez erreferente diren esperientzien datu-base moduan balioko duen online mapa bat sortzen hastea. Bi ideiak Biarritzen sortu dira... Eta han landutakoari jarraipena eman nahi diote.

Badakigu berdintasunetik eta guztiontzako plazererako praktika kulturalak eta tradizioak eraikitzeke ez dagoela bide itxirik, ez eta errezetarik ere. Edonola ere, asko ikasi dugu dagoeneko. Beraz, jarrai dezagun aurrera pausoak ematen gure historia berreskuratzeko eta berridazteko. Horrela, amets egin eta alternatiba horiek gauza daitezkeela frogatuko dugu. Gainera, bide hori lagunduta egingo dugu, beti plazera eta poztasuna nagusituz.

Eskerrik asko bihotzez eta... Atera Plazera, barrutik Kalera!!!

Argazki-albuma







